

Kontzeju

www.õnati.eus



Berba Õnati



@Berbaõnati



õnati



õnati irratih

Õnati Udaltzaria | 2017ko azaroa | 277. zenbakia



DELIK



**ONATIKO
ONDAREAREN TRANSMISIOA BERMATZEKO
PROIEKTUA**



HURRETIK

Oñatiko ondarearen transmisioa bermatzeko proiektua

Zergatik herriko kontuen belaunaldiz belaunaldiko transmisioari horrenbeste garrantzia?

Gero eta sarriago gertatzen da, komunikabideak eta teknologia berriak tarteko, gure hurreko edo gertuko mundutik urrun dagoena askoz hobeto ezagutzen dugula inguratzen gaituen errealitatea baino. Orain dela urte gutxira arte gertuko kultur ondarearen transmisioa etxean ematen zen, ipuinak, istorioak, pasadizoak kontatuaz, edo kantak eta bertsoak kantatuaz besteak beste, sukaldeko mahaiaren bueltan. Baina gaur egun etxeko transmisioak indarra galdu du nabarmen eta herri ezagutzaren transmisio hori bestelako bitartekoen bidez ematen da, halamoduz kasu askotan.

Hurretik Oñatiko Udaleko Hezkuntza sailak, herriko Ikastetxeek eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean gidatutako proiektua da. Helburua da Oñatik bere baitan duen eta aldi

berean etengabe eraldatzen ari den ondare aberatsa herritarrei transmititzea. Transmisio hori, batetik, ikastetxeetan erabiltzeko propio sortutako ikasmaterialaren bitartez bermatu nahi da.

Baina ez du hortara mugatu nahi, hortara mugatuz gero hankamotz geratuko litzatekeelako. Ikastetxeek gain herriko gainontzeko eragileak ere protagonista izan behar dira ezinbestean helburua beteko bada. Beraz, oñatiarrentzako proiektu bat izango da oñatiarrok egin eta horregatik nahi duten herritar guztiek izango dute bertan parte hartzeko aukera.

Hurretik, proiektuaren marka.

Hurre hitza poliki poliki galduz doan adiera da gerturen mesedetan. Uste dugu hezkuntzan eta bizitzan oro har, hurrean duguna ezagutu behar dugula lehenengo eta hortik abiatuta, poliki-poliki, mundu-

Oñatiarrok Oñati maitatzeko herria ezagutu egin behar dugu, ezagutzen ez dena nekez maita daitekeelako

ra zabaltzen joan. Hori da, funtsean, Hurretik proiektuaren helburua. Bide batez hurretik galdubidean dagoen hitza Oñatiarren ahotan berriz zabaltzen hasteko aukera ere bada.

Irudiak ere ildo bereko ideiak transmititu nahi ditu. Lehenik eta behin, Oñatiren eremu geografikoa agertzen da, oñatiarren herri-proiektu bat izango delako. Bestalde, zuhaitzari hazten doan heinean enborrean sortzen zaizkion uztaien ideia ere batu nahi izan du irudi honek. Kolore bakoitza geruza desberdin bat da eta ondo fijaszen bagara, eremurik txikiena, gorria, herrigunea litzateke. Herrigunetik mugara eta mugatik mundura salto egitearen adierazgarri da, beraz.

Proiektuaren gidaritz

Proiektuaren gidaritz

Oñatiko Udaleko Hezkuntza sailak eta Euskaltzaleen Topaguneak dute Oñatiko hiru ikastetxeekin elkarlanean.

Euskaltzaleen Topagunearen ardurapean Josu Zubia eta Mirari Sagarzazuk osatutako lantaldea arituko da. Josu Zubiak ikastetxeendako material didaktikoa landu eta proiektua gizarteratzeko arduraz izango du. Mirari Sagarzazu ilustratzailea, berriz, proiektuaren marka sortu eta material didaktikoa lagunduko duten irudiak sortzeaz arduratuko da.

Hurretik material didaktikoa Euskarri digitalean

Sortuta dago jada ikasmaterialaren inguruko erabakiak hartzeko ezinbestekoa izango den ikasmaterialaren lan-taldea. Bertan partaide dira Ainhoa Guridi, Elena Ibarrondo, Nagore Moiu eta Aitziber Osinaga ikastetxeetako ordezkarriak, Iñaki Akizu Hezkuntza teknikaria Udalaren aldetik eta Josu Zubia eta Sonia Perez Euskaltzaleen Topagunearen ordezkarriak. Mahai honetan adostuko da ikasmaterialaren edukia eta hartu behar duen forma. Izan ere, material honek ikastetxeentzat praktikoa, erabilgarria eta erakargarria izan behar du ezinbestean.

‘Hurretik ikasmateriala’ren bitartez Oñatiko ondarea ikastetxeetako geletara eramango da ariketa, proiektu, lan... eta abarren bitartez. 2.018ko irailerako ikastetxeen eskura jarriko da LH1 eta LH2 mailetan lantzeko zortzi sekuentzia didaktikoz osatutako materiala, gaur arte Turismo Bulegoak eta Natur Eskolak egiten duten lanaren osagarri izan nahi duena, ez bait gara zerotik abiatzen. Ikasmaterial honek WEBGUNE-BLOG itxura hartuko du eta HURRETIK sarean egongo da nahi duenak eskura izan dezan. Hau da, ikastetxeek ez ezik, nahi duen herritar orok izango du bertara sarbidea.



Udaleko Hezkuntza saila, herriko hiru ikastetxeak eta Euskaltzaleen Topagunea ari dira, elkarlanean, proiektua gidatzen

Hurretik herritarrekin tertuliak eta ikus-entzunezkoa

Esan bezala proiektuak ez du mugatu nahi ikastetxeetara eta eragin esparrua herri osora zabaldu nahi du, oñatiko talde eragile eta norbanakoak proiektu honetako parte izatea sustatuko da. Herri eragileekin bigarren lantalde bat osatu nahi da horrenbestez. Horretarako tertulia-saioak antolatuko dira urtarriletik martxora bitartean. Mahai baten bueltan bildu eta tertulia saioak egingo ditugu hainbat galdera oinarri hartuta. Zer da oñatiarra izatea? Zer jakin beharko luke lehen hezkuntzako haur batek Oñatiri buruz? Ze bitarteko erabilita? Zein ekarpen egin dezaket nik proiektu honetan? Denok daukagu zerbait proiektu honi eskaintzeko, eta parte izateko gonbitea jasoko du herritar orok.

Proiektuaren lehen hanka ikastetxeetan erabiltzeko landuko den material didaktikoa da

Proiektuaren bigarren hanka herritarren inplikazioa proiektuan

Tertuliekin batera ikus entzunezko batean modu bisualean askotan hitz xumeekin azaltzen zaila den herriko ondarea transmititzea helburu duen proiektu honen zergatia azaltzen saiatuko gara. Ikus entzunezkoak helburu hori bete nahi du, modu argi eta sinplean, ikus entzunezko labur baten bitartez proiektuaren mamia modu gertuko eta argian helaraztea. HUHEZIKo ikasle talde batekin elkarlanean egingo dugu.

Parte hartu eta izan parte

Beraz, Oñatiar guztion ekarpenak eta inplikazioa eskatzen dituen proiektu honetan zuk ere izango duzu zer esana eta Zure ekarpenak jasotzeko irrikaz gaude. Beraz esandakoa, parte hartu eta izan parte, *Hurretik!* ■



ren inguruko 'herri eskola' bat antolatzea; iraganetik ikastea, oraina ulertu eta etorkizuna sortzeko.

Auzi soziala jorratzea da asmoa; Sozialismoa zer den aztertu, eta sistema ezberdinen arteko eztabaida piztea.

Eta, aldi berean, gaur egun gizartean dauden beste talka nagusiei buruz ere hitz egingo dugu: nazionala, klase sozialen artekoa, generoen artekoa, gizakia eta naturaren artekoa... Ahalik eta jende gehienaren interesa piztea da gure asmoa.

Errusiako Iraultzaren eragina handia izan zen mundu osoan, eta baita Euskal Herrian ere.

Bai, noski. Langile mugimenduen eta herrialde "sozialisten" presentziak eragin zuzena izan zuen munduko bigarren gerra ostean sortu ziren Ongizate Estatuaren eraketan. Bestalde, Sobietar Batasunak zerikusituzena izan zuen Espainiako gerra zibiliekiko faxisten garai-penean.

Eta Euskal Herrira etorrita, nabarmena da mugimendu sozialistak izan duen eragina; marxismoak eragin zuzena izan

ERRUSIAKO IRAULTZAK 100 URTE (1917-2017) JARDUNALDIAK OÑATIN

Kontzeju | 4 | petic

Oñatiko Multibertsitatea izeneko ekimenak Errusiar Iraultzari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Taldeko kide Aimar Uribesalgok azaldu dizkigu nondik norakoak.

Euskal Herriko diskurtsoa, eta auzi soziala aldiz, ez da behar besteko sakontasunez jorratzen. Beraz, uste dugu aukera ona izan daitekeela gaia gizarteratzeko.

Zer dela eta Errusiar Iraultzari buruzko jardunaldiak?

XX. mendeko gertakaririk potenteena izan zen Errusiako Iraultza, eta ehun urte betetzen diren honetan, aitzakia edo aukera egokia iruditzen zaigu auzi sozialaren (sistema edo gizarte ereduen) inguruko gogoeta eta eztabaida sozializatzeke. Gaur egun, Euskal Herrian, askapen nazionalarekin lotutako borrokak monopolizatzen du hein handi batean

Zein da jardunaldion helburua?

Argi utzi nahi dugu hau ez dela kontu nostalgiko bat, eta helburua ez dela iraultzaren gorazarre egitea. Kritikotasuna presente egongo da, "sozialismoa" (teoria eta existitu diren praktikak) ikuspuntu "sozialista" batetik kritikatu da, ekologiari ere egongo dira hausnarketak, feminismoari zenbait gogoeta, etab.

Helburua da Errusiako Iraultza eta Sobietar Batasuna-

🗨️ **AIMAR URIBESALGO** / 'Oñatiko Multibertsitatea' ekimena

Hau ez da kontu nostalgiko bat. 'Herri Eskola' bat sortzea da asmoa, iraganetik ikasteko"



“Gertakari historiko hura
abiapuntu hartuta, gaur
egun pil-pilean dauden gai
askori buruz hitz egin nahi
dugu: generoak, ekologia,
anti-desarrollismoa,
Euskal Herria, Estatuta,
autodeterminazioa...”

zuen 60. hamarkadako abertza-
letasunaren aldaketan; Ezker
Abertzaleak sozialismoa lortzea
du helburu eta Ernai-ren filo-
safia ofiziala *materialismo dialek-
tikoa* da (marxismoaren sinoni-
moa), adibide batzuk aipatzea-
ren. Eta jakina, klase sozial
gabeko gizarte igoletario bat
eraiki nahi bada, aurreko espe-
rientzia eta saiakerak ezagutu eta
kritikatu behar dira aurrez.

*Hitzaldietako batean zeuk egingo
dizu kritika Sobietar Batasuna-
ri ekologiatik?*

Sobietar Batasuneko hazkunde
industrialak naturan eta gizarte-
an izan zuen eragina aztertuko
dut, ekologia zentzu zabalean
(gizakiaren ekologia) hartuz.
Marxismoaren ortodoxiak plan-
teatzen dituen premisetako bat-
zuk auzitan jartzen saiatuko naiz.

*Sei hitzaldi, hiru dokumental, lau
fanzine, bi autoformakuntza saio,
poesia errezitaldia, musika bildu-
ma, erakusketa, bazkari errusia-
rra... Egitarau bete-betea presta-
tu duzue.*

Bai, denerako aukera egongo da.
Gaiaren inguruan sakondu nahi
dutenentzat lau fanzine prestatu
ditugu, eta pittin bat emoziona-
tu nahi duenarentzat berriz,
musika bilduma bat; sozialismo-
arekin eta Sobietar Batasunare-
kin lotura duten kantuen bildu-
ma bat da, estilo ezberdinetako-
ak, irratsaio eran planteatuta.
Animatu eta parte hartu!



Egitaraua

▶AZAROAK 5, IGANDEA

(18:30, **Gaztetxean**)

Lau **fanzine** ('Urriko iraultza eta aurrekariak', '1917ko iraultzatik sobietar batasunaren desagertzerarte'; Sozialismoaren eragina Euskal Herrian'; eta 'Sozialismoari kritika sozialista') eta **musika bilduma** baten aurkezpena. (Errusiar ensaladilla pintxoak egongo dira.

Ondoren (19:00) **dokumentala**: '10 días que conmovieron el mundo'

▶AZAROAK 6, ASTELEHENA

(18:30, **Kultur etxean**)

Erakusketaren aurkezpena eta **bisita gidatua**. Azaroaren 17ra arte egongo da ikusgai, egunero (18:00-20:00).

▶AZAROAK 7, ASTEARTEA

(19:00, **Kultur etxean**)

Hitzaldia: 'Urriko iraultza eta aurrekariak'. Hizlaria: Gorka Etxebarria.

▶AZAROAK 8, ASTEAZKENA

(19:00, **Kultur etxean**)

Hitzaldia: 'Sobietar Batasuna: nazioen auzia eta errepasso historikoa'. Gabriel Ezkurdia.

▶AZAROAK 10, OSTIRALA

-**Hitzaldia**: 'Kritika batzuk ekologiatik Sobietar Batasuna eta marxismoari'. Hizlaria: Aimar Uribealzo (19:00, **Kultur etxean**)

-**Poesia emanaldia**: 'Masusta leninista' (Gaztelera) (22:30, **Gaztetxean**)

▶AZAROAK 11, LARUNBATA (Gaztetxean)

-**Autoformakuntza**: 'Leninismoa: boltxebikeen ideologia eta estrategia'.

(Lenin-en 'El estado y la revolución' liburuan oinarrituta). (11:30).

-**Bazkari errusiarra** (Plaza mugatuak. Tiketak Arranon salgai, 8 €) (14:30).

-**Hitzaldi-tertulixa**: 'Euskal Herria años 70. Cotilleos rojos'. Hizlaria: María Serrano (17:00).

▶AZAROAK 12, IGANDEA

(18:30, **Gaztetxean**)

Dokumentala: 'La otra URSS (lo que no nos han contado de la Unión Soviética) y la catástrofe neoliberal'.

▶AZAROAK 15, ASTEAZKENA

(19:00, **Kultur etxean**)

Hitzaldia: 'Emakumeak sobietar iraultzan. Begirada bat feminsmotik'. Iraitx Agirre

▶AZAROAK 16, OSTEGUNA

(19:00, **Kultur etxean**)

Bisita gidatua erakusketan.

▶AZAROAK 17, OSTIRALA

(19:00, **Kultur etxean**)

Hitzaldia: 'Hitz egin dezagun klase sozialen inguruan' (Zer dira? Nolakoak dira Euskal Herrian? Badago klase borrokarik?). IPES elkarte.

▶AZAROAK 18, LARUNBATA

(17:00, **Gaztetxean**)

Autoformakuntza: 'Stalinismoa: iraultza frakasatu baten teoria eta praktika'.

▶AZAROAK 19, IGANDEA

(18:30, **Gaztetxean**)

Dokumentala: 'Capitalismo: ¿Y si Marx tenía razón?'

PROMOZIO BIDEOAK

Jardunaldiak promozionatzeko bideoak ikusgai hemen:

<https://www.youtube.com/watch?v=p2q5oZwcYrw&t=28s>

<https://www.youtube.com/watch?v=mZP5Q0THME8>



Cowork Gunea

ekintzaile eta mikroenpresentzako baliabide berria

» Azaroaren 6an inauguratuko da udalak Bidaurreta dorrean egokitu duen Cowork Gunea

» Udalak eta Enpresagintza Fakultateak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute ekintzailetasuna sustatzeko

Enpresa ideia berriak dituzten ekintzaileen arteko sinergiak sustatzea helburu duen *Cowork Gunea* egokitu du udalak Olakuako dorreko lehen solairuan. Udaleko Sozioekonomia saileko buru Ana Martin eta Unai Kortabaria enplegu teknikariak eman digute baliabide berri honen inguruko argibide gehiago.

Zer da Cowork Gunea bat?

Ekintzaileei, autonomoei eta mikroenpresei zuzendutako espazio bat da, elkarren arteko sinergiak sustatu eta proiektuak partekatzeko. Enpresa ideia berriak dituzten pertsonen arteko lankidetzarako espazio partekatua bat da, harremanak sustatu, elkarrengandik ikasi eta ezagutza partekatzeko. Azken helburua, jakina, enplegua eta aberastasuna sortzea da.

Nolakoa da Cowork Gunea?

Sei plaza edo lan-leku daude



Goian, Cowork Gunea izango duen izena eta irudia. Azpian, Cowork gunearen egoitza, Olakuako Bidaurreta dorrearen lehen solairuan

bertan. Erabiltzaileek ordutegi osoa (08:00-20:00) edo ordutegi partekatua (08:00-14:00 edo 14:00-20:00) aukeratu ahal izango dute. Beraz, aukeratzen diren ordutegiaren arabera, 12 pertsona hartzera irits liteke Cowork Gunea.

Erabiltzaile bakoitzak bere mahaia eta gauza pertsonalak gordetzeko armairua edukiko ditu, eta horrez gain, bertako ekipamendua, zerbitzuak eta espazio komunak erabiltzeko aukera izango du (sare konexioa, bilera gela, topaketa gunea...).

Ekintzaileek 20€/hileko (+BEZ) ordaindu beharko dute ordutegi partekatuan. Autonomo, profesional eta mikroenpresek 80€/hileko ordutegi osoa denean, eta 40€/hileko, partekatua bada.

Zer egin behar du Cowork Gunea erabili nahi duenak?

Interesatuta dauden pertsonen udaleko Sozioekonomia sailera jo behar dute (Bidebarrieta, 12/ enplegu@onati.eus / 943003198), izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko.




Azaroaren 6an inauguratuko duzue Cowork Gunea, eta horren harira Ekintzailearen Astea ere antolatu duzue Bai. Enpresagintza Fakultateko *Mondragon Team Academy*-rekin lankidetzaz hitzarmena sinatu du udalak, ekintzailetasuna sustatzeko asmoz. Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatuko ditugu, eta Cowork Gunea inauguratzera goazela kontuan hartuz, pentsatu dugu egokia zela. Ekintzailetzaren inguruko jardunaldiak antolatzea.

Hainbat ekitaldi (solasaldiak, tailerrak...) antolatu ditugu, ondoko taulan ikus daitekeen moduan, eta animatu egin nahi ditugu herritarrak, bai Cowork Gunea ezagutzera, eta baita ekintzailetzaren inguruko ekitaldietan parte hartzera.

Cowork Gune berriaz gain, ekintzaileei zuzendutako beste laguntza batzuk ere eskaintzen ditu udalak, ezta? Bai, Sozioekonomia sailaren bitartez enpresa ideien bat martxan jarri nahi duten herriko ekintzaile eta enpresa txiki-ekiei zuzendutako laguntza eta zerbitzu ezberdinak ditugu, hala nola: enpresak sortzeko informazio eta aholkularitza zerbitzua, enpresa berriak sustatzeko laguntzak, langabetuak kontratatzeko laguntzak, Olaburu zentroan industria nahiz zerbitzu arloko enpresa ekimenak abiatzeko moduluak erabiltzeko aukera...

Laguntza hauen inguruko informazio jaso nahi duenak udaleko Sozioekonomia sailera etorri behar du.

Ekintzailetasuna sustatzeko lankidetzaz hitzarmena



Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateak bederatzi urte darama ekintzailetasunaren inguruko gradua (LEINN) ematen, eta *Mondragon Team Academy* izeneko nazioarteko ekintzailetza sarea ere badauka. Eta, hain zuzen ere, helburu amankomunak dituztela kontuan hartuz, udalak eta Enpresagintzak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, 'Oñatin elkarrekin ekin' lelopean, ekintzailetasuna sustatzeko asmoz. Lankidetzaz horren lehenengo fruitua da datorren astean burutuko den Ekintzailearen Astea.

EKINTZAILEAREN ASTEA

AZAROAK 6, ASTELEHENA

Cowork Gunearen inaugurazioa eta ate irekiak.

Olakuako dorrean (10:00). Ekintzaileei, mikroenpresei eta espazioa ezagutzeko interesa duen orori zuzendua.

AZAROAK 7, ASTEARTEA

Oñatin Elkarrekin Ekin Jardunaldia.

Enpresagintza fakultatean, 17:00-19:30. Ekintzaile, autonomo, profesional, mikro-enpresa eta, oro har, interesa izan dezakeen pertsona orori zuzenduta. Elkar ezagutu eta dituzten beharrei buruzko hausnarketa egingo da. Izen-ematea eta informazioa: enplegu@onati.eus / 943003198

AZAROAK 9, OSTEGUNA

Oñatiko Ekintzaile Gazteak tailerra.

Enpresagintza fakultatean, 9:00-12:00. Oñatiko DBH-4ko ikasleei zuzenduta. Mahai gainean jarriko den arazo edo erronka bati konponbide berritzailea eman beharko diote.

AZAROAK 10, OSTIRALA

Cowork Gunean ate-irekiak

Olakuako Bidaurreta dorrean, 15:00. Ekintzaileei, mikroenpresei eta espazioa ezagutzeko interesa duen orori zuzendua.

HURRENGO EKINTZAK

'Pitching' tailerra. Azaroak 21

'Pitch and Beer' jardunaldia. Abenduak 12



ZURICH

M² del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEMBUAK, UHO PROTANTEAK, ARDIAK, PIHTURA LANAK...






BISEINATZAILER ETA MONTATZAILEREA

SOLASALDIAK, BERRIKETA eta ASKATZ GELAKO

OLAKUA 12 B 4 esk. - 20500 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Patxi Elorzaren argazkiak



Kontzeju | 8 | peñik

DIGITALIZATUTA

1950-60ko hamarkadetako 750 negatibo digitalizatu ditu udal artxibok

caravanas  oñate




• Galdaragintza - Caldereria
Oladul zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oladul zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

Bere esku dituen argazki zaharrak digitalizatzen jarraitzen du udal artxiiboak, gure herriko historiaren eta, bereziki, gizarte bizitzaren lekuko diren irudiak egoki kontserbatu, katalogatu eta herritarren eskura jartzeko helburuarekin.

Ildo horretan, aurretik Jesus Mari Arzuaga edo Andres Arlanzonon argazki bildumekin egin den bezala, oraingoan Patxi Elorzaren 750 negatibo digitalizatu dituzte.

XX. gizaaldiko 50. eta 60. hamarkadetan ateratako argazkiak dira, garai hartako Oñati eta bertako gizarte bizitzaren lekukotza ematen dutenak: ospakizunak, jaiak, neska eta mutil kuadrillak, ekitaldi bereziak, estudiokoak... Tartean, bi argazki sorta eder daude: 1953an Oñatin jokatu zen Munduko Ziklo Kross Txapelketakoa bat, eta 1955/56an Gastiasoroko zelaian jokatu ziren aurreneko artzain txakur txapelketetakoa bestea. Balio handiko irudi funtsa, duda barik.

AUTODIDAKTA

Murgiako Santakrutz errotan jaioa, Patxi Elorzak (1911-2001) bere kasa ikasi zituen argazkilaritzaren sekretuak, Kontzejupetik aldizkariaren 5.



zenbakian egindako elkarrizketan aitortu zigun moduan. Ikasle garaian, Frai Ixidro argazkiak errebelatzen ikusita piztu zitzaion zaletasuna, eta gerora, 1949an, Forjetan lanean ari zela erosi zuen bere lehen kamera, bigarren eskukoa, 100 pezeta ordainduta, eta Kale Zaharreko 10ean jarri zuen bere estudioa. Urte askotan hara eta hona

ibili zen, bizikletan aurrena eta motorrean ondoren, herriko giroa eta ekitaldi nagusiak bere objetiboarekin betiketuz.

Halako lanetan aditua den José Valderrey eibartarrak digitalizatu ditu Elorzaren negatiboak, eta batez ere konposizio aldetik duten maila ona azpimarratu du.

Digitalizazio lanek 2.178 euroko kostua izan dute, eta Eusko Jaurlaritzak finantziatu ditu %50ean, tokiko artxiiboak sendotzeko urtero bideratzen duen laguntza programaren baitan.

Orain, euskarri digitalera pasatako argazkien deskribapen eta katalogazio lanak egingo dituzte, eta datorren urtera begira argazkiak ikusteko aukera egongo da udaleko artxiboan, bertako arduradun Izar Berasaluzek azaldu diguen moduan.

italde

www.italde.com

Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07



Auzoko-n parte hartzen duten zenbait lagun eta udal ordezkariak, ikasturte berriaren hasiera ekitaldian

Auzokideak+Auzotarrak=AUZOKO

Abian da bosgarren urtez, etorkinak euskarara hurbiltzea helburu duen **Auzoko** ekimena

Oñatiko udalak eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean antolatzen duten programa da AUZOKO. Helburua da jatorri ezberdinetako herritarrak euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integratzen laguntzea, beti ere pertsona horien hizkuntzak eta kultur aniztasuna aintzat hartuz eta balioan jarriz.

Horretarako, bi hanka edo osagai nagusi ditu Auzoko-k: alde batetik **Auzokideak** (euskararen mundura hurbildu nahi duten herritarrak) eta bestetik **Auzotarrak** (euskal hiztunak). Eta asteen behin elkartzeko Bidebarrieta kaleko 16an, ordu eta erdiz, ekintza ludikoen bidez (mahai-jokoak, tailerrak, kankak, afari tematikoak...) kulturarteko-

tasuna sustatzera euskararen bidez. Aurten, astelehenetan bilduko dira, (18:30-20:00) eta herritar guztiak daude gonbidatuta bertan parte hartzera, auzokide edo auzotar bezala.

Urtetik urtera indartuz doan egitasmoa da Auzoko. Jatorri ezberdinetako (Sahara, Nepal, Pakistan, Guinea Bisau, Polonia, Argentina,...) hamabost lagunek eman dute izena aurten, eta, zorionez, auzotarren kopurua ere goraka doa, eta hori ere oso inportantea da, etorkinen harreman sarea zabaldu egiten delako, eta asteroko dinamika aberasten dute-lako. Aurten sei gazte ariko dira auzotar gisa, Julen Korkostegi koordinatzailearekin batera. Beraien iritziak bildu ditugu.

auzotarrak



Maddi Txintxurreta

laz hasi nintzen Auzokon. Beti izan dut beste kultura batzuk ezagutzeko interesa, eta oso aberasgarria da hemengo hartu-eman. Ahal duzuna ematen duzu eta jaso ere bai.



Aitor Hernandez

Beti iruditu zait interesgarria Auzoko, baina aurten eman dut urratsa. Ahal dudana gauzetan lagundu eta kultura ezberdinetatik ikastea ere espero dut, esperientzia berriak bizitzea.



Nerea Escudero

Kolektibo ezberdinekin (desgaitasun funtzionalekoak, adinekoak...) lan egin izan dut, baina etorkinekin ez, eta aurten animatu naiz interesgarria iruditzen zaidalako hartu-eman hau.



Goizalde Gonzalez

Bermeokoa naiz eta gizarteko eragile izan nahi nuen nolabait. Asko gustatzen zait kultur aniztasuna, jende berria ezagutzea, eta harreman sarea zabiltzea. Horregatik animatu naiz.



Mikel Casais

laz hasi nintzen Auzokon. Ez du lotura handirik eskatzen eta euskara ikasi nahi duenari laguntzea inportantea iruditzen zait. Ikasi ere egiten duzu beraiengandik. Politika aberatsa da.



Jone Erostarbe

Interesgarria iruditzen zait kanpokoan eta bertakoan arteko harremana. laz hasi nintzen parte hartzen eta oso esperientzia ona izan da. Eskertu egiten dute, eta eurengandik ere ikasten duzu.

Txantxiku Txokok 90 urte

» Azaroaren 11n ospatuko dute hitzaldi eta afari batekin



Txantxiku Txoko elkarteak, Oñatiko elkarerik zaharrenak, 90 urte bete ditu, eta azaroaren 11n ospatuko dute urtebetetze borobila, bazkide beteranoen emango duten hitzaldia eta ondorengo afariarekin.

1927ko urriaren 4an sortu zen Txantxiku Txoko elkarteak 57 bazkiderekin, Andres Leturia buru zela. Txaketua tabernako goiko solairuan izan zuen bere lehenengo egoitza, 1969rarte. Gero, Aloña zinepeian (1969-70) eta Hotel Onako lehen solairuan (1970-1990) egon zen, eta Portu Kaleko plazatxoan du egoitza 1991ko ekainaren 29az geroztik.

Urte askotan Oñatiko gizarte eta kirol mailako ekitaldietan erreferente nagusia izan zen

Txantxiku Txoko. Oihartzun handikoak ziren bertan antolatzen ziren dantzaldiak. Hala, elkarteak aktetan ikus daitekeen moduan, 1936an orkestrak ordaintzeko kuota igotzea (2 pezetatik 2,5era / hileko) eta irratia aparailu bat erostea onartu zuten.

Urte bereko irailean, soldadu frankistak herrian sartzearekin batera, erreklisatu egin zuten irratia, altxamenduarekin bat ez zetozen bazkideak bidali eta elkartearen izeneko TX eta K letrak ezabatu ziren, Gobernadorearen aginduz.

KIROL EKITALDIAK

Hainbat urtetan antolatutako kirol ekitaldiek ere izen eta ospe handia eman zioten Txantxiku

Oñatiko elkarerik zaharrena da. Urte askotan herriko gizarte eta kirol mailako ekitaldietan erreferente nagusia izan zen

Txokori, ez bakarrik Oñatin, baita hemendik kanpora ere. 1940an Club Deportivo Oñate elkartearekin bat egin, eta bost sail sortu zituzten: Txirrindularitza, Futbola, Alpinismoa eta Pilota, Atletismoa eta Boxeo, eta Ehiza eta Arrantza.

1941ean Arantzazuko Igoera antolatu zuten, eta buzoiak jarri zituzten Oñatiko hainbat menditan. Goi mailako ekitaldiak antolatu zituzten 40. eta 60. arteko hamarkadetan, Aloña Mendi kirol elkarteak sortu aurretik, eta gailurra jo zuten 1953an, Munduko Ziklo Kross txapelketa antolatuta, Reyes Korkostegiren ekimenari esker, batez ere. Elkarteak Ohorezko presidente izendatu zuten Reyes 1950ean.

Gipuzkoako Itzuliko etapa bat, *Kilometro Lnzado* izeneko probak, Artzain Txakurren txapelketak (1967-1985), eta pilota, mendia, eskia edo boxeo ekitaldiak ere antolatu zituzten urte horietan, arrakasta handiz beti ere.

Kirol ekitaldietara mugatu barik, hitzaldiak antolatzen ere nabarmendu zen Txantxiku Txoko, Iñaki Zumalderen ekimenari esker, batez ere. Hala, Felix Rodriguez de la Fuente, Mikel Buesa mikologoa eta Barriola mediku ezaguna izan ziren elkartearen besteak beste. Arriaran II.a pilotariari eta Everestera joan zen Tximist espedizioari eskainitako omenaldiak ere aipamen berezia merezi dute.

Gaur egun 55 bazkide ditu Txantxiku Txoko elkarteak.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es





Bidebarrieta
kaleko 22an
ditu udalak
tutoretzapeko
lau etxebizitza,
41 eta 56 m²
artekoak

ADINEKOENTZAKO TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK

» Menpekotasun arina duten 65 urtetik gorako herritarrentzako lau etxebizitza tutelatu ditu udalak. Horietatik bi hutsik daude une honetan.

» Interesatuak udal Gizarte Zerbitzuetan egin behar dute eskaera.

Zer dira Tutoretzapeko Apartamentuak?

65 urtetik gorako pertsonen zuzendutako baliabide bat da. Menpekotasun arina duten pertsonak izan behar dira (eguneroko lantxoak egiteko gai izan behar dute) eta arrazoi bategatik edo bestegatik (etxean oztopo arkitektonikoak dituztelako, edo bakardadean

daudelako) etxe alternatibo bat behar dutenak.

Helburua da, azken batean, adineko pertsona ahalik eta denbora gehien mantentzea beraien komunitate inguruan bizitzen, beraien segurtasun sentimendua areagotuz.

Normalean, tutoretzapeko apartamentuak izaten dira bertan modu iraunkorrean bizitzeko, baina erabil daitezke

aldi baterako bizileku bezala, adibidez, bere etxeko oztopo arkitektonikoak kentzeko obra egiten ari diren herritar baten kasuan, obrak dirauen artean.

Lau etxebizitza

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak ezartzen du, tokian tokiko udalek eskaini behar

Erabiltzaileak ordaintzen duen hileroko kuotaren barruan sartzen dira etxeko garbitasuna, etxearen mantenua, kontsumo gastuak (argia, ura, berogailua...) eta tele-alarma zerbitzua

dutela tutoretzapeko apartamentuen zerbitzua.

Eta, horretarako, gaur egun, Oñatiko udalak tutoretzapeko lau etxebizitza ditu Bidebarrieta kaleko 22an; 56 eta 41m² arteko apartamentuak dira, logela bakarrekokoak hiru, eta bi logeladuna bat. Une honetan lau etxebizitza horietatik bi libre daude.

Kuotak eta zerbitzuak

Tutoretzapeko etxebizitzaren erabiltzaileek hileroko kuota bat ordaindu behar dute, bakoitzaren diru-sarreraren arabera. Gehienez 436,55€ ordaintzen dira (bikoteen kasuan), eta 488,94€ pertsona bakarra bada. Erabiltzaileari beti gelditzen zaio gutxienezko soldataren %65a gastu pertsonaletarako (otorduak ere eskatzen baditu, %30 geratuko zaio).

Etxebizitza guztiz jantzita egoten da, behar diren aparatu

ISABEL DE CORO, RAMOS / Tutoretzapeko etxebizitzaren erabiltzailea

Oso gustura nago etxearekin eta zerbitzuarekin



Kubatarra jatorriz, orain dela 22 urte iritsi zen Oñatira Isabel, bere senar Elias Plazaola zenarekin batera. Alabaren etxean bizi izan ziren hasieran, alokatutako etxe batean ondoren, eta azken 14 urteetan udalak Bidebarrietan dituen tutoretzapeko etxeetako batean bizi da. "Alokairuko etxean ere oso gustura geunden, baina nire senarraren kotizatu gabeko pentsioa zen gure diru sarrera bakarra. Beraz, udalak tutoretzapeko etxebizitzak egin

zituenean, izena eman eta zortea izan genuen". Sukaldea, egongela, logela bat eta bainu-gela ditu etxeak eta oso gustura dago bertan Isabel. "Baina txiki bat jartzekotan, balkoia pittin bat handitxoagoa izatea gustatuko litzaidake, aulki bat atera eta bertan eserita egon ahal izateko, baina gainerakoan oso gustura nago. Etxea guztiz jantzita eta ekipatuta zegoen (indukziozko sukaldea, labea, mikrouhi-labea), bainu-gela ere gure adineko pertsonen beharretara egokituta dago, logela oso ondo dago, estalitako patio txiki bat ere badaukagu erropak esekitzeko... Geure segurtasunerako tele-alarma zerbitzua era badaukagu, eta baita suteen aurkako alarma ere. Ez dago gehiago eskatzerik. Hilero ordaindu beharreko kuota ere zuzena iruditzen zait, bertan argia, ura, gasa eta asteroko garbitasuna sartzen direla kontuan hartuz. Zerbitzu egokia eta gomen-dagarria dela uste dut. Ni neu, behintzat, oso eskertuta nago udaleko Gizarte Zerbitzuei.

guztiekin eta baita higiene pertsonalerako produktuekin ere. Beraz, erropak eta gauza pertsonalak besterik ez ditu eramane behar erabiltzaileak.

Hileko kuotaren barruan sartzen dira etxeko mantenua, kontsumo gastuak (argia, ura, berogailua...), garbitasuna eta tele-alarma zerbitzua. Hortik aparte, erabiltzaileak eska dezake *catering* zerbitzua otorduak egiteko, eta arreta pertsonaleko zerbitzua, baina aparte ordainduta.

Etxe hauen helburua da adineko pertsonak ahalik eta denbora gehien mantentzea beraien komunitate inguruan bizitzen

Nor izan daiteke onuradun

Tutoretzapeko etxebizitza baten onuraduna izateko, 65 urte beteta eta Oñatin erroldatuta egon behar da. Gainera, foru aldundiak aitortutako menpekotasun maila arina (1. gradua) eduki behar da.

Interesatuak udaleko Gizarte Zerbitzuetara (Bidebarrieta 12-behea / 943037700) jo behar dute, informazio gehiago jaso edota eskaera egiteko.

Udalak zertan inbertitzea nahi duzu?

» Datorren urteko aurrekontuei begira, herritarren ekarpenak jasotzeko epea zabaldu du udalak » Azaroaren 6a da azkenengo eguna

Datorren urterako aurrekontu orokorra lantzen dihardu udalak, azaroaren 30eko osoko bilkuran onartzeko asmoz.

Udalak iturri ezberdinak erabiltzen ditu aurrekontuak osatzeko: agintaldirako plana, udal teknikari eta langileen proposamenak, alderdi politiko-koen ekarpenak, eta baita herritarrenak ere.

Eta, hain justu, herritarren ekarpenak jaso ahal izateko, buzoiak jarri ditu udalak herriko hainbat gune publikotan (udaletxea, kiroldegia, kultur etxea eta Pake Leku). Interne-
tez ere egin daitezke ekarpenak (partaidetza@onati.eus) helbidean, baina azaroaren 6a baino lehen, beti ere.

Aurrekontuak Arazerixan eta Auzotasuna

Bestalde, gogoratu behar da, 2017ko aurrekontuak lantzeko 'Aurrekontuak Arazerixan' ekimena jarri zuela martxan udalak, herriko haur eta gaztetxoekin aurrekontuak modu parte hartzailean lantzeko. Ber-



tan jasotako proposamenetako batzuk aurten burutu diren arren, 2018rako ere kontuan hartuko dira prozesu horretako emaitzak.

Aipatu behar da, bestalde, 2012an martxan jarritako Auzotasun Programaren bidez udalak 100 mila euroko diru atala banatzen duela herriko 16 landa-auzoen artean, eta auzo bakoitzak erabakitzen duela diru hori zertan gastatu (auzokorrek berriak, ondarea berreskuratu, zerbitzuak egokitu...).

Udaletxean, Kultur etxean, Kiroldegian eta Pake Lekun daude herritarren ekarpenak uzteko buzoiak. E-postaz ere egin daitezke, partaidetza@onati.eus helbidean

Azaroan onartuko dira 2018ko udal aurrekontuak

Normalean, abenduko osoko bilkuran onartu izan dira hurrengo urteko udal aurrekontuak, baina, aurten, hila-bete lehenago onartzea da udal gobernu taldearen asmoa. Ustekaberik ez bada, azaroaren 30eko osoko bilkuran onartuko dituzte 2018ko udal aurrekontuak.

Foru Ogasunak eskatuta, 2018ko Zerga Ordenantza urrian onartu behar izan du udalak, eta, bide batez, aurrekontuen lanketa ere hilabete aurreratzea erabaki du gobernu taldeak. "Horrek esfortzu extra bat suposatuko duen arren, denontzat izango da onuragarria, ahalbidetuko baitu urte osoa izatea habila aurrekontuen exekuziorako, eta hori denontzat izango da onuragarria".

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletelne.es

2017AN ZEHAR UDALAK BURUTU DITUEN PROIEKTU AIPAGARRIENAK



Skate parkea eta tirolina

Ibarrako skate parkea eta tirolina (52.000€)



Ur Uhinak parkea

Larrañako ur txorroten parkea (324.000€)



Eraberritze lanak

San Lorentzo (250.000€)
Zubillaga (160.000€)
Olakua (240.000 €)



Eltzia

Eltzia proiekturako eraikina egokitze lanak (375.000 €)



Olalan - Cowork Gunea

Ekintzailatza sustatzeko lankidetzarako gune berria (35.000 €)



'Xirrika', sexu aholkularitza zerbitzua

Bidebarrieta kaleko 16an (5.308€)



Bidegorria San Lorentzon

(260.000 €)



Aldakiño / Mojasoro

Aldakiño argiteria jartzea (23.100 €). Mojasoroko bidea egokitzea (62.600 €)



Frontoiaren argiztapena

(25.737 euro)



Hurretik-Herri Curriculumuma

Oñatiko ondarearen transmisioa bermatzeko proiektua (30.250 €)



Kale garbiketa zerbitzua publikizatzea



Jabekuntza Eskola

Emakumeen formaziorako eta gogoetarako topagunea (8.450 €)



Selma Huxley beka

Historia genero ikuspegitik aztertzeko beka (12.000 €)



Txiki Txokoko teilatua

Olakuako Haur Eskolako teilatua berritzea (24.772€)



HAPO giortzea

Herri Antolaketarako Plan Orokorraren inguruko sentsibilizazio kanpaina (21.695 €)



Oñatiko Udala Grant Beka

Lege Soziologia erakundarekiko elkarlana sustatzeko (4.000 €)



Erabakiak hartzeko unea iritsi da

» Talde Eragileak udalaren esku utzi du kirol instalazioak berritzeko inbertsio-proposamenak jasotzen duen txostena » Udalak hil honen erdialdera jakinaraziko du nora bideratuko dituen inbertsioak

Bizpahiru aste barru jakingo dugu zein den udalaren asmoa kirol azpiegiturei dagokienean; kiroldegia berrituko ote duen, igerilekua handituko ote duen, nola, zein epetan... Azaroaren erdialdera jakinaraziko du udalak zertara bideratuko dituen inbertsioak hurrengo urteetan.

Halaxe adierazi zuen Borja Moia kirol zinegotziak, herriko kirol azpiegiturretan egin beharreko inbertsioen balorazioa eta proposamena landu duen Talde Eragileak emandako prentsaurrekoan.

Iazko abenduan eratu zen Talde Eragilea udalaren deia erantzunez. Kirol instalazioetan egin beharreko inbertsioen tamaina ikusita (igerilekua handitzeko 3 eta 5 milioi arte-

ko inbertsioa aurreikusten da *Chocarro&Herranz* arkitektoek egindako aurreproiektuaren arabera) udalak komenigarria ikusi zuen prozesu parte hartzaile bat abian jartzea.

Eta ia urtebeteko jardunaren ostean, Talde Eragileak eman dio udalari bere balorazioak eta proposamenak jasotzen dituen txostena.

KIROLDEGIA ETA KALEKO EKIPAMENDU IREKIAK

Berrehundik gora proposamen jasotzen ditu Talde Eragilearen dokumentuak, lau multzotan banatuta: kiroldegia, kaleko ekipamendu irekiak, Larraña eta Azkoagain.

Lehentasanak finkatzeko orduan, Zubikoa kiroldegiko inbertsioek izan beharko dute

leentasuna, talde eragilearen ustez, berau delako kirola egiten duten herritar gehienen erreferentzia gunea. Ildo horretan, igerilekuaren handitzea da lehenesten den inbertsioetako bat.

Kaleko ekipamendu irekiak egokitu eta osatzeko premiak ere balioespen altua jaso du Talde Eragilearen txostenean, bi arrazoi nagusigatik: herritar orori irekiak daudelako, eta erabilera anitzeko aukera ematen dutelako. Ildo horretan, Urrutxuko kirol gunea egokitzeta, eta Olaitturriko kirol gunea estaltzea dira, txostenak lehenesten diteun inbertsio-proposamenetako batzuk.

Horiez gain, diru askorik gastatu barik, eragin handikoak izango liratekeen beste hainbat

esku hartze ere proposatzen dira txostenean: auzoetako pilotalekuak egokitzea, bidezidorrak markatzea, ping-pong mahaiak, bidegorrian iturria eta komuna jartzea... Inbertsio-plan finkoa ezartzea proposatzen da.

LARRAÑA ETA AZKOAGAIN

Larrañako kirol guneari dagokionez, gainerako instalazioak arindu eta jarduera berriak garatzeko aukera ematen duela uste du Talde Eragileak. Besteak beste, zelaia berritzea proposatzen du.

Azkoagaini dagokionean, oinarrizko zerbitzu batzuk oso egoera kaskarrean daudela dio Talde Eragileak, eta, ildo horretan, aldagelak egokitu beharra aipatzen du. Gainera, zelaia laster berritu beharra izango duela gogorarazten du.

HEMENDIK AURRERA ZER?

Talde Eragilearen txostena ez da loteslea udalarentzat, baina oso kontutan izango dutela esan zuen Borja Moiu zinegotziak. Bide batez, eskerrak eman zizkien Talde Eragileko kideei, hilabete hauetan erakutsitako konpromiso eta inplikazio maila handiagatik.

Hemendik aurrera udalari dagokio erabakiak hartzea, eta Moiuak aurreratu bezala, hile honetan bertan izango dugu erabaki horien berri. Horren harira, gogorazi zuen, Foru Aldundiak ia 454.000 euroko dirulaguntza onartua duela kiroldegia eraberritzeko lanen gastuei aurre egiteko, eta hori ere oso kontun hartu beharko da erabakia hartzeko garian.

TALDE ERAGILEAK PROPOSATUTAKO INBERTSIO NAGUSIAK

ZUBIKOA KIROLDEGIA

- Konfort maila hobetzea
- Gune hezea egokitzea eta igerilekua handitzea
- Irisgarritasuna hobetzea
- Kantxa urdineko akustika, hozberoa, aldagelak...
- Harrera gunea eta gelak
- Tenis pista estaltzea;
- pilotalekuko ezker horma
- Paddel pistak

KALEKO EKIPAMENDU IREKIAK

- Urrutxuko gunea egokitzea (atletismoa, patinajea eta txirrindularitzarekin lotutako jarduerak sustatzeko
- Plazako pilotalekua, Olaitturri eta Errekaldeko kirol guneak estaltzea (Olaitturrik izango luke lehentasuna).
- Auzoetako pilotalekuak egokitzea
- Bidezidorrak markatzea (xendazaletasuna, BTT...)
- Ping-pong mahaiak
- Bidegorrian iturria eta komuna jartzea
- San Martingo parkea egokitzea

LARRAÑA

- Zelaia berritzea

AZKOAGAIN

- Aldagelak berritzea
- Zelaia berritzea

LANBIDEn bitartez zortzi pertsona kontratatzeke deialdia egin du udalak

Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako Lanbidek udalei ematen dien diru laguntzaren bitartez, zortzi pertsona kontratatuko ditu udalak hiru hilabeterako. Horietako hiru kale-garbiketa zerbitzuan ariko dira, beste lau mendiko bideak garbitzen, eta bat informatikari laguntzaile lanetan. Deialdian parte hartu ahal izateko Oñatin errolatuta egon behar da. Interesatuak azaroaren 6a baino lehen eman behar dute izena Lanbideren bitartez.

Kirol teknikari bat aldi baterako kontratatuko du udalak

Eskola Kirola programaren eredia egokitzeko prozesua koordinatu eta udaleko kirol arloko planifikazio estrategikoaren garapenean egungo teknikariari laguntzea izango dira, besteak beste, bere egitekoak. Hasiera batean urtebeterako kontratua egingo zaio. Deialdian parte hartu ahal izateko, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako goi mailako titulazioa eskatzen da, eta 4. hizkuntz eskakizun maila egiaztatzea. Interesatuak azaroaren 3a arteko epea dute izena emateko udal bulegoetan.

Herritarren ekarpenak jaso nahi ditu EAJk 2018ko udal aurrekontuei begira

2018ko udal aurrekontuen lanketari begira, herritarren ekarpen, iritzi eta proposamenak jasotzeko bideak ireki ditu EAJren udal taldeak, aurkeztuko dituen ekimenak herritarren behar eta eskaerei erantzun diezaieten. Batzokian jarri duten buzoian ez ezik, emailez (pnvonati.partaidetza@gmail.com) eta Facebook edo Twitter sare sozialen bidez ([eajpnvonati](#)) egin daitezke ekarpenak.

EAJk gogorazi du iaz jaso zituzten hainbat proposamen gauzatuta daudela jada, hala nola: ur txorrotan parkea, enplegua eta ekintzailetasuna sustatzeko Cowork gunea, plazako frontoiaren argiztatzea... Beraz, animatu egiten ditu herritarrak ekarpenak egitera.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



KLAU

*Oinetakoak,
Moda eta
Osagarriak*

Atzeko Kale 6 · Tel.: 943 04 50 66 · www.klaumoda.com

Autobus zerbitzuen murrizketen aurkako sinadura bilketa antolatu du udalak

» Udaletxeko sarreran jarri duten orrian eman dezakete sinadura herritarrek

Lurraldebusek, Gipuzkoako Aldundiaren autobus zerbitzuak, egindako murrizketen aurkako mozioa onartu zuen udalak urriko osoko bilkuran. Bertan esaten da Oñatiko herritarrek garraio publiko duina izateko eskubidea dutela, eta eskaera hauxe egiten zaio foru aldundiari: galdu diren zerbitzuak berreskuratzea, edo, gutxienez, lan eta eskola sarrera eta irteera orduetan bailarako lotura zuzenak bermatzea, Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatzara.

Eta eskaera horrek indar handiagoa izan dezan, babesa ematera dei egiten die udalak herritarrei, sinadura bilketa baten bidez. Beraz, udalaren eskaera babestu nahi duten herritarrek udaletxeko sarreran jarri den orrian eman dezakete sinadura.

LOTURA ZUZENAK GALDU

Lurraldebusek Debagoieneko lineatan egindako berrantolaketa urriaren 2an sartu zen indarrean, eta Oñatiren kasuan zenbait zerbitzuren murrizketa eragin du. Ondorioz, Oñati lotura zuzenik gabe geratu da Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Eibarrekin.



Murrizketa horiek herritar askoren (ikasleak, langileak, adineko pertsonak...)haserrea eragin dute, eta udal gobernu taldeak bere egin ditu herritar horien salaketak, kontuan hartuta, gainera, kaltetuen artean gizarteko sektore zaugarriak (Bergarako *Gureak* lantegira doazen herritarrek...) daudela.

Aldundiak planifikatu dituen zerbitzu murrizketak ez dira onargarriak udal gobernuaren ustez, ikuspuntu ekonomizista hutsetik ezarri direlako. Diputazioaren neurri honek dakar, hainbat herritar (irisgarritasun murrizteko pertsonak, ikasleak, hirugarren adinekoak...) bigarren mailako hiritar bezala tratatzea, EH Bilduren udal taldearen ustez.

Lurraldebusek egindako berrantolaketa onorioz, Oñatik galdu egin du lotura zuzena Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Eibarrekin

Onartutako mozioak dio, murrizketa hauekin zazpuztu egiten dela Aldundiak aurreko agintaldian egin zuen garraio publikoaren aldeko apustu estrategikoa.

EAJ MOZIOAREN AURKA

Mozioaren aurka bozkatu zuen EAJk. “Ez ditugu onartzen murrizketak bere horretan. Ez da onargarria mugikortasun arazoak dituzten pertsonen eta adinekoen eragiten dieten murrizketak egitea” adierazi zuen Idoiaga bozeramaleak. Baina gehitu zuen, hau ez dela mozio bidez landu beharreko gaia. “Era honetako arazoak gestio zuzenaren bidez konpontzen dira, foru aldundira joanez, eta datuak, proposamen zehatzak eta alternatibak mahai gainean jarri. Ez mozio bidez.”

Udaleko zerbitzuetako buru Irati Etxeberriak erantzun zion, esanez, egin dituztela gestioak aldundian, “baina bi aukera eskaini zaigu, eta biak txarrak. Bien artean herritarrei kalte gutxien eragingo ziena aukeratu behar izan dugu”.

Aldizkari hau saiatu da Foru Aldundiko Mugikortasuneko zuzendariaren iritzia jasotzen, baina ez du erantzun nahi izan.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 732 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

“Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu”.

OÑATI-ARANTZAZU autobus zerbitzuan neguko ordutegia sartu da indarrean

Azaroaren 1etik apirilaren 1era egongo da indarrean neguko ordutegia Oñati-Arantzazu arteko autobus zerbitzuan. Goizeko 7:30etan hasita, ordu-betero ibiliko da autobusa, baina eguerdi partean hiru orduko etena izango du zerbitzuak, beheko taulan ikus daitekeen moduan.

OÑATI-ARANTZAZU	
	07:30
	08:30
	09:30
Arrikrutzen geldigunea*	10:30
Parada en Arrikrutz	11:30
	12:30
	13:30
<small>Hegala zerbitzuan ez dago azalduz eguerdian. En horario de invierno, no hay autobús al mediodía.</small>	
	16:30
	17:30

ARANTZAZU-OÑATI	
	08:00
	09:00
	10:00
	11:00
Arrikrutzen geldigunea*	12:15
Parada en Arrikrutz	13:15
	14:00
<small>Hegala zerbitzuan ez dago azalduz eguerdian. En horario de invierno, no hay autobús al mediodía.</small>	
	17:15
	18:00

%1,5 igoko dira udal zerga eta tasak 2018an

» Auto elektriko eta hibridoetako aplikatuko zaie ibilgailuen zergan

Datorren urterako ordenantza fiskalak aho batez onartu ditu udalbatzak, eta irizpide orokor bezala udal zerga eta tasei %1,5eko iguera aplikatzea adostu dute, KPI/IPC indiziak hego Euskal Herrian izan duen igoeraren parekoa.

Irizpide orokorra hori izanik, zenbait salbuespen eta berritasun ere jasotzen du urtarillaren 1ean indarrean sartuko den Zerga Ordenantzak. Hala, adibidez, ibilgailuen zergan hobaria

aplikatuko zaie ibilgailu elektrikoetako (%75) eta hibridoetako (%50). Bestalde, negozio berriak irekitzeko tasari %40ko beherapena aplikatuko zaio, eta Olaburu zentroan sortzen diren aktibitate berriek ere %100eko hobaria jasoko dute alta ematerakoan.

Hondakinei dagokienean, tasa bidez lortzen den zerbitzuaren estaldura maila %2 igotzea (%84tik %86ra pasatuz) adostu dute EH Bilduk eta EAJk.

Oñati nola eraldatu den ikusteko ibilaldi gidatuak



Udalak antolatu duen 'Oñati Dana-Zana' girotze kanpainaren baitan gidatutako hiru irteera egingo dira hurrengo hiru larunbatetan: 'Landa inguruko eraldaketak' (azaroak 4); 'Plazen eta kaleen izana eta izaera' (azaroak 11); 'Lorategi eta baratze ezkutatuak' (azaroak 11). Ibilaldi guztiak goizeko 10:30etan hasiko dira, Kale Barriako erakusketa gunean. Parte hartzeko aurrez izena eman behar da, udaletxeko harreran edo emailaz (odanazana@gmail.com). Gogoratu, bestalde, Oñatiko herriak azken 80 urtetan izan duen eraldaketa azaltzen duen erakusketa ikusgai dagoela Kale Barrian, azaroaren 25era arte.

Ziburu irisgarria Kalegoienan berriz



Behar funtzional bereziak dituzten haurrei egokitutako ziburua jarri du udalak berriz ere Kalegoienan. Orain dela ia bi urte jarri zuen ziburu hau 'Trauti-Hesirik Gabe' elkartearen eskaria aintzat hartuz, baina irailan kendu egin behar izan zuen, norbaitek su eman ziolako.

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6
Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com

Ekitaldi ugari antolatu ditu Turismo Bulegoak XV. urteurrena ospatzeko

Azaroaren 29an ospatuko da turismo bulegoaren XV. urteurrena. Egitaraua zehaztu gabe dago oraindik, baina sopresaren bat edo beste egongo dela aurreiratu digute.

Horiez gain, beste zenbait ekitaldi ere antolatu dituzte azaroan zehar. Hala, hilaren 19an (9:30)



helduei (+18 urte) zuzendutako Espeleo-Arrikruz irteera egingo da Arrikruzeko koban, eta hilaren 25ean (10:00) gazttxoentzako (+6 urte) Espeleotxiki irteera. Batean zein bestean plaza mugatuak izango dira, eta aurretik erreserba egitea beharrezkoa da (943082000 / arrikruz@onati.eus).

Errekak garbitzeko irteera eta Esako urtegiari buruzko hitzaldia **Uraren Astearen** barruan

Oñatiko Zero Zabor taldeak eta Natur Eskolak udalarekin lankidetzan antolatzen duten 'Ura eta Erreken Astea'-ren barruan, errekak garbitu eta landare inbaditzaileak kentzeko irteera egingo da igandean (azaroak 5). Goizeko 9etan da hitzordua, herriko plazan.



Bestalde, hilaren 6an, astelehena, Esa-ko urtegiari buruzko dokumentala (*Los malos sueños de Rene Petit*) eta hitzaldia egongo dira Gaztelekuan (19:00). **YESA+NO lanak gelditu!** plataformako kide Iker Aramendiak hitz egingo du Esako presa handitzeko lanen gaur egungo egoeraz.

Gurasoen Formaziorako tailerra

Udalak eta herriko ikastetxeek osatzen duten Hezkuntza Mahaiak gurasoei zuzendutako hainbat hitzaldi eta tailer antolatu ditu ikasturte honetarako. Lehenengoa, 'IKT Hezitzen: teknologia berrien erabilera egokia' azaroaren 15ean eta 22an izango da, 8-12 urte arteko seme-alaben gurasoentzat. Eta abenduan errepikatu egingo da tailerra, baina 13-16 urte arteko seme-alaben gurasoei zuzenduta. Rakel Gamito izango da gidaria bietan. Otsailean dolua eta galeren inguruko hitzaldiak izango dira, apirillean sexu aniztasunari buruzkoa, eta maiatzean droga kontsumoa eta adikzioen ingurukoa.

Bigarren Eskuko III. Azoka egingo da azaroaren 25ean

Flea Market, Bigarren Eskuko Azokaren hirugarren edizioa egingo da hilaren 25ean Foruen enparantzan (10:00-14:00). Euren produktuak (erropak, liburuak, musika, jostailuak, altzariak...) saldu edo trukatu nahi dituzten herritarrek hilaren 18a baino lehen eman behar dute izena fleamarket.oinati@gmail.com helbidean.

Errigora kanpaina abian da

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzea helburua duen ERRIGORA ekimena abian da berriz ere. Nafarroa hegoaldeko baratzetako produktuz osatutako saski ederrak 50€tan eros-teko aukera dago, eta %25a bideratuko da bertako euskalgintzari laguntzera. Azaroaren 14a da saskiak eskatzeko azken eguna, internetez (www.errigora.eus) edo kultur etxean jarri den buzoian.



Txantxi-ek utzitako funtsa 9 elkarteren artean banatu da

Txantxi moneta soziala zirkulazioan egon zen garaian ia 4.700 euroko funtsa osatu zen, eta orain diru hori gizarte zerbitzuen arloan diharduten 9 elkarteren artean (Txolartea, Elkarzabal, Emaloña, Nagusilan-Pake-Leku, Espetxe Pastoraltza, Trauti, Behar Zana, Acesma eta Hospitalidad de Lourdes) banatzea erabaki du mahai teknikoak.



GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAK
Garbitasunaren usaina

653 70 45 47
Oñati

PINTURAS URBIA MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Kontzejupetik

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraan izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Oñatiko EAJren gerria eta aurpegia

Nerea Zubia Blazquez, Oñatiko EH Bilduko kidea eta zinegotzia

Ohituta gaude honezkero, bai aurreko agintaldian eta baita oraingoan ere, EAJk sistematikoki EHBILDUko Udal Taldeak, Udal Gobernuak, proposaturiko proiektuetan kontrako jarrera ikustearekin.

Hondakin bilketa sistemaren kontra, San Martineko plan berriaren kontra, Eltzia proiektuaren kontra...eta agintaldi honetara etorrira, berdintsu jarraitu dute: aparkaleku sistema berriaren kontra, atzeko kale oinezkotzearen kontra, kale garbiketa zerbitzua Udalak berreskuratzearen kontra, eta nola ez 2017ko Udal Aurrekontuetan ere beraien bozka: Kontra.

Hau horrela izanik ere politikan gerria izatea ohikoa den heinean, talde politiko bakoitzak bere mezua helarazten du momentu bakoitzean, bere irizpideen baitan, momentuko egoerak eskatzen duen neurrian. Hori ulergarria da, zilegia da. Gerria izatea, alegia.

Beste kontu bat da aurpegia izatea. Aurpegia behar da norberak egin edo proposatu ez dituen horiek norbere zakuan sartzeko. Berriki jakin dugu sare sozialetatik, Oñatiko EAJk adierazita, 2017ko Aurrekontuan martxan jarritako sozioekonomiako "Co-work" gunea,

Kaixo Oñati!

Zer moduz zaudete? Gu hemen lan eta lan, aspaldiko partez! Herrimenez gaude dagoeneko. Oporretara joan ginen eta ez duzue gure berririk izan urte askoan, horregatik pentsatu dugu zuei gutun hau idaztea. Oñati eta oñatiarron falta somatu dugu hemen, horregatik gogotsu gaude bertara joateko.

Esan nahi dizuegu dena prestatzen ari garela egun handirako: arropak, kremak, bitxiak... Ea ez zaigun ezer ahazten. Aspaldi ez dugula halako ospakizunik egin eta urduri gaude!

Baina beno utzi egin behar zaituztegu, izan ere, hegazkineko txartela hartu behar dugu. Martxa honetan gehiago garestituko da eta hala bada ezingo gara joan! San Prudentzion geltokia egin dutela enteratu gara! Ze ondo! 2015eko Kontzejupetik atzo heldu zitzaigun eta bertan ekartzen zuen berria!

Inork bertan ikusten bagaitu eraman gaitzala Oñatira, mesedez! Laster helduko gara! Sorpresa askorekin! Adi egon! Besarkada eta muxu bana, Oñati!

Algaraz P.L.

frontoiko argiak "Ur Uhinak" parkea, ...beraieie esker jarri direla martxan. Beraiek Kontra bozkatutako aurrekontuari esker, alegia.

Nik dakidala, EHBilduk bere agintaldiko Gobernu programan argi azaldu zuen sormen eta eikintzaitetasunerako gunea abian jarriko zuela. Frontoiko argiak? Arazerixan prozesuan herriko haur eta nerabeek proposatu zioten Udalarik nik dakidala. Eta ur txorrotak? Bai, ur txorrotak aipatu zituen EAJk baina non, nola zein modutan..inolako proposamen gabe. Udalak Paisaia Plan baten baitan, galdutako parke bat balioan jarri eta proiektu oso bat aurkeztu zuen. EAJk begi onez ikusi ez zuena; "zentralidadea" falta zitzaiolako edo. Arrakasta izan

duela ikusi dutenean, badirudi "zentralidadea" aldatu zaiela. San Lorentzoko Konpostugunea zegoen lekutik kentzeko proposamena zuei eskerrak etorri da bai; jarri zen hurrengo egunean eska-tu zenuten iada kentzeko.

Ulertu nahi dugu, desesperazio puntu bat baduela jarrera honek. Oñatiko EH Bilduk bere agintaldiko programa izango du bere udal jardunaren oinarri nagusi, eta betiko moduan ekarpenetarako zabalik ditu ateak, kolore guztietako herritarrenak eta baita EAJ taldearenak ere. Gobernuan egonagatik ere oposizio taldearen laguntza beharrezkoa dela argi dugu Ehbildun, herria denon artean egingo dugulako. Baina modu arduratsuan mesedez.



Etxe-Aundik zerbitzurik onena eskaini nahi dizu:

- Ezkontzak
- Asteburuko menu bereziak
- Enpresen harrera ekitaldiak

Tel. 943 78 19 56 www.etxeaundi.com

Etxe-Aundi
Heldu. Jatorri.



Jostailu truke

- Arazerixan -

Gabonak datozela eta, Txaloka udal ludotekatik laugarren urtez jostailu truke egitasmoa jarriko dugu martxan. Egitasmo honen helburua, jostailuak berrera-biltzea, kontsumismoa murriztea, elkartasuna eta lankidetzaz bultzatzea eta jostailuei bigarren aukera bat ematea da.

Urtero lez, interesatuok 3 egun izango dituzue erabiltzen ez dituzuen jostailuak ludotekara ekartzeko: azaroak 27, abenduak 4 eta 11. Orduetgia: 16:45etatik 19:45ak arte.

- **BALDINTZAK:** Egoera onean eta osorik egon behar dira. Sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten dituztenak ez dira jasoko (pistolak, ...). Jostailu txikiak multzoka trukatu dira (kanikak, kotxetxoak, ...) Haur bakoitzak gehienez 3 txartel jasoko ditu bueltan, nahiz eta jostailu gehiago ekarri daitezkeen.

Abenduaren 16an, larunbata, bildutako jostailuekin azoka burutuko dugu Txaloka udal ludotekan, 11:00etatik 13:00etara. Azokara haur bakoitzak bere txartelak ekarri, eta jostailuengatik aldatuko ditu.

PROBATU ETA GOZATU EKIMENA

Gabonen bueltan ere, aurren, nobedade bezala, haur eta gurasoei zuzendutako ekimena antolatu dugu ludotekan. Probatu eta gozatu ekimenaren bitartez, 3-5 urte eta 6-8 urte bitarteko haurrentzat atera berri diren eta euskarazkoak diren jostailuak nola-koak diren, nola jolastan den eta gustuko duten edo ez jakingo dute.

Euskal argitaletxeek atera berri dituzten jostailuak egongo dira, probatu eta jolasteko aukera eskainiz. Beste mota bateko jostailuak ere egongo dira, kooperatibo naiz konpetitiboak. Hori bai, argibideak euskaraz ekartzen dituztenak eta oso ondo egituratuak daudenak. Hauek, erakargarriak izateaz gain, material aproposa izaten dute, eta fitxak galdu ezker ere hauek soltean erosteko aukera ematen ohi dute.

Ekimen honekin, Gabonetarako erosi nahi den jostailua gustukoa den ala ez aurrez jakiteko aukera eman nahi diegu haur eta gurasoei.

- **EGUNA:** Azaroak 28

- **ORDUA:** 17.00-19.00

- **LEKUA:** Oñatiko Txaloka Udal Ludotekan



AZAROAN...

GAZTELEKUAN: [1] Arimaren gaua (17:00). [5] Klash Royal Lehiaketa(17:00). [10] Oñati-Begirada bat airetik. Oier Yaniz-en lan aurkezpena (17:00). **DONOSTIAN:** [10] Zientzia astera irteera (14:30). **KUBOAN:** [12] Pelikula emanaldia (17:30). [12] Desfilea + karaokea (17:00). **TXALOKA LUDOTEKAN:** [27] Jostailu truke (16:45-19:45). [28] Probatu eta gozatu tailerra (17:00-19:00).

Azaroak 25: Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna

Balantzea eta kanpaina itteko unea da. Erakunde eta instituzioak komunikabideetan agertuko dira gizarteari gogoraraziz indarkeria matxistarekin bukatu beharra dagoela. Haizeak eramango dituen asmo onez beteriko adierazpenak. Emakumeon aurkako indarkeriak aurpegi asko ditu: irainak, gusto txarreko txistek, kolpeak, prekarietatea, pobrezia... Eta mutur-muturrekoak diren erailketa matxistak; 2017an zazpi... emakume erailak Euskal Herrian. Denon eginkizuna da honekin bukatzea!!! Pertsonala politikoa delako!!! Azaroak 25ean denok plazara!!! Eguerdiko 12:30tan

Oñatiko Sare Feminista

EGITARRAUA

▶AZAROAK 14, ASTEARTEA

Hitzaldia. Dolores Julianoren hitzaldia kultur etxean, 19:30. 'Tomar la palabra. Mujeres, discursos y silencios' liburua aurkeztuko du. Gizarte antropologoa da Juliano; emakumeen bazterketaz ikertu du, besteak beste estigmatizazioaz eta zigorraz. Ondoren luntxa egongo da Gaztetxean.



▶AZAROAK 23, OSTEKUNA

Dokumentala. 'Volar'. Emakunde Donostiako Zinemaldian aurkeztutako dokumentalaren emanaldia kultur etxean (19:30), Nerea eta Debora, bi protagonisten solasaldiarekin.



▶AZAROAK 25, LARUNBATA

Elkarretaratzea plazan, 12:30.

▶ABENDUAK 1, OSTIRALA

Kale antzerkia. Lur Ikara Kabareta, Mugarik Gabe-ren produkzioa. Foruen plazan (17:00).



ZUBILLAGA

Urriaren 1ean (Zubillaga) auzoko jaiak tarteko, Arotzena baserriko Patxi Igarzabal aitajaunaren biloba, birbiloba, errain eta arrimatutako senideak batu ginen, egun polit bat igarotzeko asmoz, aspaldiko kontuak gogoratuz. Euskal Herriko hainbat txokotatik (Bergara, Bilbo, Hernani, Gasteiz, Bakio...) eta Madrildik etorritako 30 bat lagun guztira.

Hamar urte ziren azkenekoz bildu ginenetik, eta ikusmina handia zen. Istoria eta bitxikeria ugari atera ziren mahaiaren bueltan, baina, batez ere, bat nabarmendu zen: aitona Patxi hiru aldiz ezkondua zela.

Lehenengo ezkontzatik ez zuen ondorengorik izan, emaztea (Barbara Joakina Arregi) eta haurra (Barbara) erditzeko garaian hil baitziren. Bigarren ezkontzatik (Urrexolako Jesusa Ramona Igartuarekin) hiru mutil (Lukas, Doroteo eta Placido) eta neska bat (Casimira) jai

Fernando Mendiguren



ziren, eta jai obreritan hil zen beste haur bat ere bai. Emaztea bera ere, Jesusa, handik egun gutxira hil zen, aitona alargun utziz bigarrenegoz. Hirugarren eta azken emaztea Uribarriko Erostei Txiki baserriko Bonifacia Guridi izan zen; hiru alaba (Jesusa, Rufina eta Regina) eta seme bat (Jose Luis) izan zituzten. Oso emankorra izan zen aitona Patxi, bistan denez.

Bazkalostean, Eli Igarzabalek 'Antxinako Zubillagari begirada bat' liburua aurkeztu zigun, Asun Billarrekin batera eta Artixa taldearen laguntzarekin osatu dutena. Auzotarrek ere aktiboki parte hartu dute liburuan, beraien bizipen eta argazkiekin.

Eta, egiari zor, esan behar da lan bikaina egin dutela. Liburu ederra da, bai

konposizioan eta baita edukietan ere, eta irakurlea harrapatu eta emozionatzeko gaitasuna dauka.

Balio handiko informazioa, datuak eta argazkiak biltzen ditu liburuak, eta ezinbesteko erreferentzia da Zubillagako auzoaren izana eta iragana ezagutu nahi duenarentzat. Jerardo Elortzaren sarrera sakon eta aberatsa, Zubillagako aspaldiko ohiturak, bizimodua, lanbideak, festak, industriaren bilakaera (Jose Antonio Azpiatzuk egina), pertsonaia esanguratsuak, planoak, toponimia... Eta liburuaren osagarri CD bat (antxiñako irudiek...). Merez du, benetan, liburua erosi eta irakurtzea.

Lerro hauen bidez zoriondu egin nahi ditutu Eli eta Asun, lan bikainagatik. Auzo honen historia eta sentimentua /izaera islatzea lortu duzue, Winston Churchill-en esaldi ospetsuari balioa emanez: "Bere iragana ezagutzen ez duen pertsona, ez dago oraina eta etorkizunari aurre egiteko moduan".



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia



Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egonetzko labean sartu

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



San Martinetik San Pedrora

Oñatitik Erromara (2.733 km.) bizikletaz joan da Agotz Iturbe

Kirolzalea eta erronkazalea da Agotz Iturbe (Oñati, 35 urte). Lehenago ere egin izan ditu balentria handiak, eta irailen burutu berri duena ere harritzeko modukoa da. Oñatiko San Martin zubitik abiatu eta Erromako San Pedro plazaraino joan da bizikletaz, bakarrik, 28 egunetan, bataz beste, 100 kilometro eginez egunean.

Bizikletan ibiltzea, korrika egitea eta mendian ibiltzea gustatzen zaio, eta ohituta dago iraupen luzeko probak egiten: Hiru Handiak mendi martxa hirutan, Madriletik Segoviara oinez, sei bat maratoi, Irati Extrem, Quebrantahuesos eta Lagos de Covadonga-ko zikloturista probak, Britainiatik Finisterrera bizikletaz... Asko dira Agotzek gainditu dituen erronkak, baina azken honek txiki uzten ditu orain artekoak, kontuan hartuz, Pirinioak, Alpeak eta Apeninoak igaro behar izan dituela bidean.

“Aspaldiko ametsa zen; Oñatitik Erromara joatea, oinez



Ibilbidean bildutako zigituak (goian), Apeninoetako Cisa mendatean (erdian) eta kontsultatutako gidak (ezkerrean)

28 egunetan osatu du ibilbidea, egunean, 100 kilometro eginez, bataz beste, Pirinioak, Alpeak eta Apeninoak zeharkatu ostean.

edo bizikletaz” aitortu digu. Oinez joateko denbora asko behar denez, bizikleta prestatu eta irailaren 1ean abiatu zen San Martinetik, eta San Migel bezperan iritsi Vaticanora, erromes-bide ezberdinak lotuz.

Iruñean Done Jakue Bideko Frantziarren ibilbidea hartu zuen Donibane Lohizuneraino; han Piamonte Bidea, Lourdeseraino, gero Arles-eko bidea eta Alpeak zeharkatzen dituen

Via Domita, eta azkenik *Canterbury*-tik datorren Via Francigena, Erromaraino. Gainera, denboraz ondo zihoala ikusita, bidetik atera eta azken astean Umbriako eskualdea (Asis, Perugia, Spoleto...) ikusteko aprobetxatu zuen, Vaticanora iritsi aurretik.

BAKARRIK, BAINA EZ BAKARDADEAN

Tarteka bidelagunen bat edo beste izan badu ere, Agotzek bakarrik egin du Oñati eta Erroma arteko bidea, baina hori ez omen da arazo izan. "Jende asko harritu egiten zen, bai, batez ere nondik nora nindoa ikusita, baina ohituta nago bakarrik ibiltzen eta, gainera, herri txikietan beti dago jendea hitz egiteko gogoz. Frantsesez eta italieraz hitz egiten dut, eta, egia esan, ez naiz sekula bakardadean sentitu. Oso jende atsegina aurkitu dut bidean".

Galduta ere ibili omen zen egunen batean, baina, oro har, ez du aparteko arazorik izan. "Zulatu bat bera ere ez dut izan bide osoan, eta fisikoki ere ondo moldatu naiz. Azken batean, egun osoa daukazu kilometroak egiteko, eta ohitu egiten zara". Alforjak eta aurrealdeko poltsarekin 12 kiloko gainkarga eraman du bizikletan, eta Agotzek berak 8 kilo galdu ditu bidean.

Esperientzia oso ona izan dela aitortu digu. "Bihar bertan errepikatuko nuke. Paisaiak, jendea, bizipenak... Azken batean egunero abentura bat zen, eta pertsonalki oso aberasgarria izan da. Bidaian ez ezik, aurreko hilabeteetan ere asko gozatu dut bidiaren nondik norakoak prestatzen nituen bitartean".

Etorkizunean ez daki zer egingo duen. Planik ez zaio falta (Danubiko ibaiaren bidea, Midi eta Garona ubideak lotzen dituen, Eurovel-6...). Denbora da, tamalez, falta izaten dena.

Herri bazkaria egingo da azaroaren 25ean Pilota sailaren 50. urteurrena ospatzeko

» Herriko pilotazale guztiak daude gonbidatuta. » Bazkalostean, pilota sailaren historia jasotzen duen DVDA aurkeztuko dute.

Aloña Mendiko Pilota sailaren 50. urteurrena borobiltzeko herri bazkaria egingo da azaroaren 25ean Zubikoa pilotalekuan. Herriko pilotazale guztiak daude gonbidatuta. Aloña Mendi, Izarraitz eta Arrano tabernetan daude salgai bazkarirako txartelak 30 €-tan (helduena) eta 10 €-tan (gazteena). Bazkalostean, Pilota sailaren historia jasotzen duen DVDA ikusteko aukera egongo da.

Hirurak aurrera Master Cup-ean



Emakumeen 4 1/2-ko banakako Master Cup txapelketako kanporaketak jokatu ziren joan den asteburuan Zubikoan, eta gure hiru ordezkariak (Maddalen Etxegarai, Mireia Mugarza eta Uxue Oses) hurrengo fase-rako sailkatu ziren oso maila polita erakutsiz

MENDI IRTEERA / AZAROAK 19

Valderejoko Parke Naturalera



Azaroko irteeran Hirumugarrietan ateratako argazkia

Aloña Mendik hile honetarako antolatu duen irteera Valderejoko natur parkean barrena izango da, San Lorenzoko ermita bisitatuz eta Purón ibaiaren bideari jarraituz. Guztira 16 km. eta 700 m-ko desnibela, zailtasun barik. Irteera, goizeko 8etan, postetxean. Izena emateko azken eguna: azaroak 16, Aloña Mendi tabernan edo alonomendi.mendi@gmail.com helbidean.

Mendi Federatu kanpaina - 2018

Aloña Mendiko Mendi sailak 2018rako federatu kanpaina zabalduko du azaroan. Aurtengo federatuei automatikoki berrituko zaie txartela. Federatu berriak egiteko edo aldaketak egiteko, mendi sailako kideak Aloña Mendiko egoitzan egongo dira azaroaren 14, 16, 20 eta 22an (19:00-21:00). Internetez (alonomendi.mendi@gmail.com) egiteko aukera ere egongo da, azaroaren 22a baino lehen. Behar diren datuak: izen-abizenak, jaiotze data; helbidea, NAN eta kontu korrante zenbakiak, telefonoa, e-posta, federatu maila (Euskal, FEDME), eta gehigarriak (Frantziar Pirineoa, mundua, BTT, eski alpinoa, snowboard...). Prezioak Euskal Mendi Federazioaren webgunean ikus daitezke. Federatuta egotearen garrantzia azpimarratu du Aloña Mendik.

Mendi Astea

Azaroko azken astean izango da Aloña Mendik antolatutako Mendi Astea. Egitaraua guztiz itxi gabe dago oraindik, baina aurreratzeko moduan gaude, hilaren 24an **Julio Villar** alpinistaren hitzaldia egongo dela, berragitaratu duen 'Viaje a pie' liburuaren gainean. Hilaren 29an **Jorge Garcia Dihinx**-en (*La mete que viene*) hitzaldia egongo da, eta **Oihana Kortazar** mendi lasterkaria ere ekarriko dute, azaroaren 28an.

Argazkia: Natxo Santos



Badator Movember... dagoeneko, biboteen mugimenduaren 5. urtea izango da aurtengoa. Prostata eta barrabiletako minbizaren kontzientzia areagotu nahi da ekimen honekin, eta bide batez, itxulapikoak jarriko dira batzen den dirua ikerketara bideratzeko. Hilaren 25ean talde argazkia (20:00 plazan), eta afaria egingo dute. Informazio gehiago **Movember Oñati** Facebook-eko profilean.

‘Irakurketa Erraza’ ekimena berriz ere martxan udal liburutegian

Zailtasunak dituzten irakurleei (inmigrazioa, eskolatzeko urrikoak, ikasketekin arazoak dituztenak...) zuzendutako ekimena da ‘Irakurketa Erraza’. Irailean egin zuen deialdia udal liburutegiak Oñatin errolatuta dauden atzeritarren artean, eta dagoeneko talde bat osatu da, baina oraindik lekua dago nahi dutenentzat. Astelehen goizetan (11:00) izango dira saioak, Nerea Escuderok eta Arantzazu Ibarrondok (udal liburutegiko zuzendariak) dinamizatuta. Azaroaren 8an da lehenengo hitzordua. Taldea irekita dago nahi duten herritar guztientzat.



HITZALDIA

Udazkena, elikadura eta gorputza

Azaroaren 23an, Udal Euskaltegian, 18:00



Urtaroaren arabera, naturan bezala, gure gorputzean ere aldaketak gertatzen dira eta horrek behartzen gaitu gure elikadura behar berrietara egokitzera. Zuhaitzak momentu honetan hostoak botatzen dituen moduan, geure gorputza ere antzeko lanetan dabil. Denak du eragina gure gorputzean: emozioak, ordu aldaketak, argi faltak ... Urtaro berrira moldatzen joateko dauden trikimailuak ezagutzea eta naturak oparitzen dizkigun produktuak erabiltzea ondo etorriko zaigu egunerokoa samurtzeko. Gomendioa da laster etorriko den neguari aurre egiteko prestatzen joatea.

Horretaz guztiaz ariko da Amaia Diaz de Monasterioguren dietista udal euskaltegian azaroaren 23an (18:00). Herritar guztiei irekia.

Bigarren Ipuin Ibiltaria idatziko dute Haur Liburutegian

Herriko umeen artean bigarren ipuin ibiltaria idazteko ekimena jarriko du abian udal liburutegiak. Koaderno batean idazten joango dira ipuina; haur edo haur talde bakoitzak orrialde bat, aurretik idatzitakoari jarraipena emanez. Ume edo talde bakoitzak astebete izango du idazteko. Parte hartu nahi duenak Haur liburutegian eman behar du izena azaroan zehar. Gehienez 15 ume onartuko dira.



Lehen ipuinean parte hartu zuen ume taldea

Ostegun Kontalariak eta Tertulixan saioak

Ostegun Kontalariak programaren barruan, 3-5 urte arteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa egongo da azaroaren 30ean (18:00). Belen Azkaratek ‘Txokolatzeko etxea’ saioa eskainiko du udal liburutegian. Hilaren 20tik aurrera banatuko dira gonbidapenak.

Bestalde, udal liburutegiko **Tertulixan-Irakurle Taldeek** hasiera emango diote ikasturte berriari. Euskarazko taldea azaroaren 15ean batuko da ‘Ehiztariaren isilaldia’ (Luis Garde) liburuaz hitz egiteko, eta gaztelarazko taldeak hilaren 29an izango du hitzordua, ‘Cicatriz’ (Sara Mesa) liburuaren inguruan.



‘Pinotxo’ musikalaren DVDa eta CDa argitaratu du Ganbara Txikik

Pinotxo. Hariekin lotu gabe musikalaren irudiak eta abestiak jasotzen dituen DVD eta CD bana kaleratu du Ganbara faktoriak. Txokolatexan eskura daitezke biak ala biak, 12 et 10 eurotan. Dena den, musika-luzuzenean ikusteko aukera ere badago oraindik. Azaroaren 18an Lazkaon (Azeria aretoa) taularatuko dute, abenduaren 27an Bilboko Euskaldunan eta urtarrilaren 3an Iruñean.



'La Chunky Sessions' disko berria plazaratu du Juan Valls bakarlariak

» Azaroaren 19an emango du aurkezpen
kontzertua Patrua Kalen (19:45)



Txaketua, Pako eta Boga tabernetan
eskura daiteke diskoa 5 €-tan

Gitarra akustikoa eta aho-soinua lagun, 'La Chunky Sessions' izeneko disko berria grabatu du Juan Valls (Oñati, 1992) bakarlariak. Fisikoki plazaratzen duen bigarren lana da (2015ean atera zuen aurrenekoa, 'Life holds red lights on behind' eta 2016an streaming bidez argitaratu eman zuen 'Blue distance and other bluish songs').

Glasgow-ko (Eskozia) 'La Chunky' estudioan (hortik diskoaren izenburua) grabatu zuen lan berria, Johnny Smillie-ren gidaritzapean. "Gitarra akustiko bat erosi eta lagun bat bisitatzea joan nintzen uda partean Glasgow-ra. Han nintzela bospasei kontzertu emateko aukera sortu zitzaidan, eta pentsatu nuen leku eta une egokia izan zitekeela disko bat grabatzeko. 'La Chunky' estudioa gomendatu zidaten, egokia iruditu zitzaidan, eta aurrera. Bi egunetan egin genuen; aurrenekoan diskoa osorik grabatu, eta bigarrenean masterizazio lana. Modu analogikoan grabatu ahal izan nuen, oso era naturalean, eta oso gustura nago emaitzarekin" azaldu digu Vallsek.

Country, folk eta blues ikutua duten zazpi kanta biltzen ditu diskoak, 6 eta 12 sokadun gitarra akustikoarekin grabatutakoak (harmonika ere erabili du abesti batean). Berak sortu eta idatzitako abestiak dira, denak ingelesez. "Txikitatik izan dut lotura estua ingelesarekin, eta nire sentimenduak adierazteko modu naturalena da gaur gaurkoz. Oso exigentea naiz neure buruarekin, eta oraingoz ez dut lortu abesti onik idaztea euskaraz" aitortu digu musikariak. Sentimenduak eta irudimena dira nagusi testuetan, baina interpretaziorako bidea zabalik utziz, beti ere.

Estiloari dagokionez, musika amerikarraren eragina nabarmena da oraingoan ere, baina bada eboluziorik aurreko diskotik hona. "Gitarra jotzeko era ez da hain intimista, fuertegoa da, eta ahotsak ere indar handiagoa du".

Diskoa atera zuenetik hara eta hona dabil lan berria aurkezten. Sopena, Donostia, Xixon, Oviedo, Zamora, Salamanca, Madril... hainbat lekutan jo du, eta Oñatin azaroaren 19an aurkeztuko du, ez ohiko tokian, Patrua Kalen (eguraldia txarra bada, Gaztetxean).

Gustura eta eroso sentitzen da Valls bakarlari gisa, baina aurrera begira ez du baztertzeko taldean aritzeko aukera. "Kanta hauek banda batean ere ondo eman dezaketela uste dut".



fontanería y calefacción

BELOKI

- > Iturgintzako material salmenta
- > Komun eta sukaldeetako erreformak
- > Aizulejoen salmenta

- > Halefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

%20ko deskontua
erakusketako altzarietan

Musikegunak

OÑATIKO XXXIX.

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Oñatiko udaleko kultura sailek antolatuta.
Emanaldi guztiak Santa Ana aretoan izango dira, 19:00etan. Sarrera, 6€

5

AZAROAK

Khami World Sounds Euskal Herriatik mundura eta mundutik Euskal Herrira

Euskal folkloreak munduko beste zenbait folklorerekin dituen parekotasunak aztertu eta nahasketak bilatuz lan egiten duen proiektua da Khami. Euskal tradizioko instrumentuak (txistua, danbolina, alboka, txalaparta) nahasten dituzte beste tradizio ezberdinetakoekin (pianoa, kitarra, kontrabaxua, bateria), soinu berezkoa eta mestizoa elkartuz, sormenerako gaitasun handia duten musikari bikainek interpretatuta.



Iñaki Salvador pianoa, **Carlos Sagi** bateria, **Garikoitz Mendizabal** txistua, **Luis Gimenez** kitarra, **Kike Arza** kontrabaxua, **Iraide Ansorena** perkusioa.

12

AZAROAK

Alos Quartet eta Aukeran dantza taldea

Musika eta dantza uztartuko ditu Musiegunetako bigarren emanaldiak. *Alos Quartet* laukoteak bere azken lana (*Garden*) aurkeztuko du, Edu Muruamendiarez bergararrak zuzentzen duen *Aukeran* dantza konpainiarekin batera. Arin arinetik tangora, fandangotik bals eztiara eta doinu lasaietatik erritmo indartsuetara egingo dute jauzi.



AUKERAN dantza taldea
taldeta eta **ALOS QUARTET** laukotea:
Pello Ramirez celloa,
Xabier Zeberio biolina
eta *Nyckelharpa*,
Lorena Nuñez biola
eta **Francisco Herrero**
biolina.

ETXIAN
Oñatiko inmobiliaria berria
Donostian etxea prosteko ere,
aukera onenen informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo
lokal bat saldu nahi
al duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net
Etxian f

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

19

AZAROAK

Dúo Sarasate

Jonathan Mesonero, bibolina
Mercedes Medina, pianoa

Maitasun eta adiskidetasun ibilaldia eskainiko digute Mesonero eta Medina, *Schubert, Brahms, Fauré, Bartók, Debussy* eta *Fallaren* obren bitartez.

Goi mailako bibolin-jolea dugu Jonathan Mesonero, prestigio handikoa nazioarte mailan. Espainia, Berlin edo Euskadiko orkestratan jo ohi du sarri solista bezala.

Mercedes Medina ere pianujole handia da. Francisco Escudero kontserbatorioko irakaslea da egun, eta ganbara talde ezberdinetan aritzen da.



26

AZAROAK

Alberto Urretxo, tronboia, eta Vanessa Goikoetxea, sopranoa



Alberto Urretxo arrasatearrak 'Soinuaren bidaia' izeneko lana aurkeztuko du Vanessa Goikoetxea sopranoa lagun duela. *Bartók, Mahler, Schubert, Brahms* edo *Piazzola*-ren lanek transmititzen dituzten emozio eta sentimenduen bidez musika entzuteko aukera desberdin bat eskaintzen du. Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronboi bakarlaria eta *Euskadi Brass* taldeko zuzendaria da Urretxo. Vanessa Goikoetxeak, estatubatuarra sortzez, Bilbon eta Alemanian osatu zituen ikasketak eta Europa nahiz Japoniako eskenatoki inportanteenetan abestu du



OÑATIKO IX. TRIKITI Jaialdia

Larunbatean, azaroak 4, Oñatiko IX. Trikiti Jaialdia ospatuko da, Lizargarate elkarteak antolatuta.

Santa Ana aretoan izango da jaialdia, 17:30etan, zazpi trikitilari talderen partehartzearekin, hala nola: Aratz, Martin, Andoni eta Garazi (Fan&Go); Maitane Aierza eta Aiora Urdangarin; Miren eta Roberto Etxebarria; Jon Ostolaza eta Rakel Pujana... Sarrerak (12 €) Arrano tabernan daude salgai, edo enkar-guz (lizargarateelkatea@gmail.com). Azken hauek takilan batuko dira egunean bertan, 16:30ak baino lehen. Bestela salgai jarriko dira. Jaialdiaren ostean afaria egongo da Gaztelekuan, eta tiketak 16 eurotan daude salgai toki berdinetan.

ANE MERTZERIA


- Josteko zarak
- Lentzeria
- Umeon jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

AGENDA

11

AZAROA



ODOL ATERALDIA

> **AZAROAK 10 / 17:00**

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

LABURMETRAIAK

> **AZAROAK 11 / Egun osoan**

OÑATIKO VIII. LABURMETRAI RALLYA

Azaroaren 11n ospatuko da Oñatiko Laburmetrai Rallya, zinea eta

euskara uztartzen dituen lehiaketa. Partaideek 11 ordu-tan grabatu beharko dute filma, antolatzaileek egunean bertan emandako gaia/generoa eta objektuaren arabera. Urriaren 30ean zabalduko da izen-ematea, eta gehienez 20 taldek parte hartu ahal izango dute. Beraz, azkar ibili eta eman izena olr.antolakuntza@gmail.com helbidetan. Talde bakoitzak 8 lagun izango ditu gehienez.



'ERRADIKALAK GARA'. Bertsoa eta bakarrizketa

> **AZAROAK 25**
SANTA ANAN, 19:30

Ane Labaka, bertsolaria, eta Beatriz Egizabal, aktore eta ipuin kontalariaren ikuskizuna. Maletak kontraesanez beteta ekarriko dituzte, bertso eta bakarrizketa formatuan. Erraietatik ariko dira, umorez, erroetara iritsi nahian. Sarrera: xx €.

MUSIKA ESKOLA

> **AZAROAK 22 / 17:00**

Musika Eskolakoak kalera aterako dira Santa Zezilia eguna ospatzera: kalejira (17:00), ekitaldia berdura plazan (17:30) eta txokolate beroa.

MUSIKA BANDA

> **AZAROAK 26 / 12:45**

Santa Zezilia eguneko kontzertua eskainiko du musika bandak. Santa Ana.

MUSIKA

> **AZAROAK 5 / 20:00**

'MANUAL DE COMBATE' Manual de Combate (Txile) taldearen kontzertua. Ona tabernan.

> **AZAROAK 17 / 22:00**

'CRIMINAL REMAINS' ETA 'KATUARRAI'



Aretxabaleako *Criminal Remains* punk-hardcore taldea eta Getariako *Katuarrai* punk-rock taldearen kontzertua. Gaztetxean

> **AZAROAK 24 / 22:00**

'RUKULA' + 'INOREN ERO NI'



Funk, rock, stoner, metal... estiloak nahasten dituen Usurbilgo *Rukula* eta Andoaingo *Inoren Ero Ni* rock taldearen kontzertua. Gaztetxean

> **ABENDUAK 2 / 21:00**

HANGOVER FEST.

Metal gaua. Gaztetxean

BERTSO SAIOA

> **ABENDUAK 1 / 19:00**

Bertsolariak: Maider Arregi, Odei Barroso, Miren Amuriza eta Aitor Bizkarra. Gaztetxean.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



HITZALDIA

> **AZAROAK 3 / 19:00**
EUSKAL AZTARNAK
SARDINIAN



Argitaratu berri duen liburua-
ren inguruko hitzaldia
emango du Juan Martin Elex-
puruk. Kultur etxean.

IKASTAROAK

> KZ GUNEA

KZGuneak urrirako antolatu
dituen ikastaroak: 'Google
Drive. Dokumentuak bildu eta
partekatu'; 'Google Maps. Ibil-
biderik onena arakatu eta au-
keratu'; 'Ofimatika tresnak.
LibreOffice'; 'Twitter'; 'Pinte-
rest'; 'Erosketa eta salmenta
seguruak internet bidez'; 'Fa-
cebook'. Informazioa: 943 023
672 / tutor.onati@kzgunea.net

IPUIN KONTAKETA

> **ABENDUAK 3 / 17:00**
3-8 urte arteko umeentzako
saioa Ane Gebararen eskutik.
Ondoren, haurrentzako esku-
lanak. Gaztetxean.

ANTZERKIA 'Hozkailua'

> **ABENDUAK 1**
Santa Ana, 22:30

Huts Teatroa taldearen lan
berria taularatuko dute
Ander Lipus eta Patricia
Urrutiak. Unai Iturriagak
idatzitako istorioa da. Mai-
te eta Karlos herririk herri
dabiltza hozkailu zahar
batekin. Hozkailuaren
barruan, garagardo lata eta
hestekien artean, Londo-
netik dakarten Jimmy lagu-
naren hilotza daramate. Zin
egin baitzioten Jimmyri
bere jaioterrian lur emango
ziotela. Nongoa zen gal-
detzea ahaztu zuten ordea.
Sarrera: 10€

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Komikia
"Illegal"



Haur liburua
"Tristán encoge"



Liburua
"Libroterapia. Leer es vida"



Haur liburua
"Hontz kumeak"



Liburua
"Conoce bien lo que comes"



Liburua
"Jenisjoplin"

MERKATU TXIKIA

> **KLASE PARTIKULARRAK** Esperientzia handia duen
irakasleak klase partikularrak ematen ditu udan eta urte
osoan. 653 718 030 / 943 782 843 (Jaione).

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Azaroak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28. Abenduak 6 eta 7.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Azaroak 2, 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30. Abenduak 8 eta 9.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
azaroak 3, 4, 5, 13, 14, 22 eta 23. Abenduak 1, 2 eta 3.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Azaroak 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26. Abenduak 4 eta 5.

PAKE LEKUKO KULTUR ASTEA / azaroak 6- 10

AZAROAK 6, ASTELEHENA

Kontzertua. Aloña eta Goizalde (Zuma-
rraga-Urretxu) abesbatzak. Santa Anan,
18:00.

AZAROAK 7, ASTEARTEA

Hitzaldia. 'Juegos y apuestas en la historia
vasca'. Jose Antonio Azpiazu. Pake-Lekun,
17:30

AZAROAK 8, ASTEAZKENA

Zinea. 'Bienvenidos al norte'. Kultur etxean,
17:00. Doan.

AZAROAK 9, OSTEGUNA

Bingo berezia opariekin. Pake Lekun, 17:00

AZAROAK 10, OSTIRALA

Antzerkia Pake Lekuko Ikusi-Makusi taldea-



ren eskutik 'Nos vamos de vacaciones'
Santa Anan, 17:30. Pake Lekuko bazkideen-
tzat soilik (abenduaren 3an beste emanaldi
bat eskainiko dute, herritar guztiei irekia)
AZAROAK 24, OSTIRALA
Gaztaina jana. Pake Lekun, 18:00 (1€).

Plaza nagusia (IV)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Gure plaza nagusia, aurrekoan aipatuez gain, beste hainbat pertsonaia, gertaera, pasadizo eta ekintzaren lekuko eta testigu izan da azken ehun urteotan ere. Halaber, badira eremu horretan orain arte agertu gabeko beste eraikuntza azpimarragarri batzuk ere. Denak hemen izendatzea ezinezkoa zaigun arren, batzuk behintzat gogoratuko ditugu:

PERTSONAIA POLITIKO BATZUK

- Alfonso XIII.a eta Victoria Eugenia errege-erreginak behin baino gehiagotan heldu ziren Oñatira bisita ofizialean. Besteak beste, erregea 1918ko irailaren 1ean Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarraren irekiera-ekitaldira; eta erregina 1923ko irailaren 30ean San Prudentzio-Oñati trenbide-adarra inauguratzera; senarra ez zen etorri, egun batzuk lehenago Miguel Primo de Rivera jeneralak jo zuen estatu-kolpearekin oso lanpetuta baitzegoen.

- Miguel Primo de Rivera diktadore laburra (1923-1929) ere iritsi zen honaino 1925ean. Eta honen nahiz Francoren ministro eta lankide estua izan zen Severiano Martínez Anido jeneral ankerra sarriago, bere seme bat, Roberto M. Baldrich marrazkilari eta diseinatzaile ospetsua, oñatiar batekin ezkondu zelako.

- Niceto Alcalá Zamora, II. Errepublikako presidente are laburragoak (1931-1936) gure herria bisitatu zuen 1933an. Goiko argazkian ikus daitekeenez, herriko plazan neska gazte oñatiar batzuen agur beroa jaso zuen.

- Francisco Franco diktadore luzea ere (1939-1975) etorri zitzaigun Arantzazu eta Oñatira 1944ko irailean, emaztearekin batera. Carmen Polo beste behin izan zen Arantzazun bere biloba Arantxarekin.

- Juan Carlos Borboikoa, 1950ko hamarraldiaren hasieran, oso gaztetan, Donostian igaro zuen urte bete, Miramarko jauregian, ikasketak egin alde, eta Oñatiraino ere hurbildu zen.

- Manuel Fraga Iribarne, Francoren ministro zela, egon zen Oñatin, Arantzazun eta Urbian 1967ko San Juan egunean. Orduko argazki ugari geratu dira.

- Trantsizioaren ondorengo azken hamarkadetan ere maki-na bat agintari, lehendakari eta politikoa hurreratu zaigu, baina hori azaltzeak beste atal oso bat eskatuko luke. Badago, bai, hori ere aztertze gaia.



N. Alcalá Zamora presidentea Oñatiko plazan (1933).

PLAZA INGURUKO ZENBAIT EZOHIKO AGERRALDI

Aspalditxoan Foruen enparantzian mota askotako agerraldiak ikustera ohitu gara: zerbaiten alde edo kontrako manifestazio edo elkarretaratzeak, asmo eta helburu kontrajarrikoak batzuetan. Sasoi batean, ordea, ez zen horrela izaten eta alde batekoak bakarrik ziren zilegi. Francoren diktadura garaiko batzuk gogoratu nahi genituzke:

Agerraldi edota manifestazio-saiakera ez legezko eta debekatu horiek 1960 eta 1970ko hamarkadetan gertatu ziren batez ere, frankismoaren azken aldera; eta gehienetan guardia zibilek edota poliziek indarrez sakabanatzen zituzten. Adibidez, Maiatzaren 1aren edo Aberri egunaren inguruan egiten ziren saio apalak; 1967ko jaietan polizia nazionalak, orduko grisek, jendea majo astindu zutenekoa; 1970ko abenduan Burgosko prozesuaren garaian izandako kale-protesta latzak; 1975eko uda-udazkenean Txiki eta Otaegi fusilatu aurretik eta ondoren egon ziren manifestazio istilutsuak; edota amnistiaren aldekoak trantsizioan. Egia esan, gerora ere izan dira plazan eta alboko kaleetan ertzainen eta manifestarien arteko gatazka zaratatsuak.

PLAZA ALDEKO BESTE HAINBAT ERAIKIN AIPAGARRI

Aurretik esandakoetatik aparte, beste eraikin batzuk ere jaso ziren Foruen enparantza aldean, helburu eta eginkizun desberdinetarako.

• Iturriak

Plaza zaharrean bazen 1524ra orduko bat *Iturrizar* moduan ezagutzen zena, egun Ibarrondoneko sotoan aurkitzen dena. Kokaleku desberdinak izan zituen beste bat era ipini zen 1759an.

Baina ezagunena, jakina, Frantzisko Antonio Elortza jeneral araoztarraren omenez 1882an jasotakoa dugu; herriko beste lau iturri monumentalekin batera eraiki zuten Pedro Jose Astarbe eta Casto Zabala arkitekto bizkaitarren zuzendaritzapean, Juan Carlos Alzaa alkatetzaren denboran. Harrizkoa da, baina jeneralaren bustoa burdinazkoa, Pariseko A. Durenne de Sommevoire enpresan egina. Hasieran orain kioskoa dagoen tokian jarri zen; 1930 aldera kiosko atzean; eta 1950ko hamarraldian egungo tokira eraman zuten.

• Merkatua

Sasoi batean herria haragiz eta arrainez hornitzeko salmenta-tokiak urtero enkantera ateratzen zituen udalak. **Harategi zaharra orain Oñati kafetegia dagoen orubean aurkitzen zen;** arkupeak eraikitzeke lanak hasi zirenean, jesuitak San Ignazio eliza eduki zuten lekura aldatu zen 1850ean, egungo Gaztelekuaren harrerara-edo. Han iraun zuen **1870an okelaren salmenta liberalizatu zen arte.** Harrezkero ez zen harategi publikorik egon.

Eremu horretan egituratu zen, askoz geroago, **merkatu estalia 1927-1928an, Damian Lizaur arkitekto oñatiarraren proiektuaren arabera.** Pelotaleku aldera ematen zuen aurrealdea udaletxearen tankera zeukan. Geroztik hamaika aldakuntza eta gehikuntza izan ditu eraikin horrek gaur egungo ikastetxe eta Gaztelekua bilakatu den arte. Hori dela eta, fruta eta barazkien merkatua eta arrandegia alboko aterpe eta soto berri batera atera ziren duela urte batzuk.

• Eskolak

Gizaldi askotan egon dira **ikastetxeak plaza inguruan.** Antzina, **jesuiten egoitzan, Araoz izeneko jauregian, gaztetxoei latina irakasteko,** eta jesuitak alde ondoren ere jarraitu zuena udalaren kontura.

Ubao errekez bestaldetik jesuiten elizari erantsita herriko **neska-mutikoentzako eskolak** ere izan ziren garai desberdinetan eta XIX. mendearen erdira arte-edo, orain Gaztelekua aurkitzen den paraje horretan.

Neskatilentzako herri-eskola berria egin zen 1924an, Damian Lizaur arkitektoaren planoekin eta parrokiako klaustro aldera begira bi pisutan; 1936ko gerratean espetxe gisa erabili zuten, baina gero berriz irakaskuntzara bihurtu zen.

Neskatilen eskola horri erantsita **1960ko hamarkadan mutikoen herri-eskola jaso zen,** maristak 1963an herritik joan zirenean. Eskola hori merkatuaren porlanezko estalkiaren gainean altxatu zuten; herri-eskola moduan jardun zuen 1979-1980 ikasturtera arte, eta hurrengo kurtsoan izena estreinatu berria zuen **Txantxiku ikastola plazako ikasgela horietara aldatu zen;** han jarraitzen du, geroago birmoldatu zen Santa Anako ikastetxearekin batera.



Foruen enparantza iturriarekin kioskoa jarri aurretik (1920ko hamarraldia)

• Kioskoa

Oraindik zutik dirauen plazako **kioskoaren proiektua ere Damian Lizaur arkitektoari enkargatu zion Oñatiko udalak 1928an.** Doroteo Arrazola zen alkate urte haietan. Ia bederatzi hamarkada hauetan zenbat musika-banda eta taldek ez ote dute hor-tik alaitu, besteak beste, oñatiarron dantzaldiak eta erromeriak.

Kioskoaren azpian gizakume eta emakumeentzako **pixatoki publikoak** atondu ziren, plazaren ertz baten zegoen txabolaren orde.

• Pelotalekua

Plaza zaharrean bazen pelotalekua Lazarraga eta Araoz jauregien artean, kioskoa kokatzen den inguru horretan, hain zuzen ere. Baina **plaza berria itxuratzean, frontoia lekuz aldatzea erabaki zen.** Hartarako lurra Mariano Artazkoz, Lazarraga etxe-ko jaunak dohainik utzi zizkion herriari, baina baldintza batzuekin: garrantzitsuena, egunen batean beste zeregin baterako erabiltzen bazen, lurren jabetasuna beren ondorengoei itzuli beharko zitzaizela.

Materiala, kareharri gogorra, Kale Zahar aldeko San Antone ermita ondoko harrobitik atera zen. Egitasmoa plaza obretan aritutako Antonio Kortazar arkitekto donostiarrek taxutu zuen eta kontratista Emeterio Madinabeitia oñatiarra izan zen. Jatorrizko frontoia oso luzea genuen, garai hartako joko-motek (*erreboteak, bote luzeak, laxoak* eta halakoek) horrelaxe eskatzen baitzuten. Garbi ikusten da hori jatorrizko planoetan eta Gernikako arbolaren ondoan han dago *sakarri* edo *botarria* horren lekuko. Luzaroan pelotaleku ireki hori izan zen txantxikuar askoren kiroldegi bakarra eta gustuko elkargunea.


TABERNA • JATEKETA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

IMITTOLAKO INTXAURRA

Gaurko kontua Olabarrietan pasau ei zan. Betiko moduan, Aste Santu aurtxuan etorri zan abadia misiñuak emutera, hau da, Aste Santua gertaketako garizuman egitten ziran aste-bete inguruko gogo-jardunak emutera, eta hasi zan altaratik:

Auzotar maittiok, ermita eder honetan alkartu gara gaiñian dogun Aste Santua bihar dan moduan gertaketa-ko. Garizuman gagoz, gure gorpu-tzak eta animak garbiketako garaixa; horregatik, bada, lehenengo eta behin aitortu degigun gure pekatuak. Isilunia egin eta gero... San Jose be hor dogu



Intxola 1969 (desagertuta) - Olibarrieta Auzoa (Argaiñola José Urtebe)

altaraan guri begira, guri lagunketako gertu, eskatu degixogun berari laguntasuna.

Eta hori esan orduko behian eguen auzotar bat altxau zan eta holaxe bota otsan:

Jauna, zenbat bider esan bihar dogu hori eztala San Jose, hori Imittolako intxaurra dala!

Abadiak hori entzun ebenian luze jausi etzanian!

Ez kikilddu, ez lotsatu

Gura dok/n [gurok/n]. Bihar dok/n [bihok/n]; []=esateko eria

Hona hemen lagun pare bapua, agoz orain arte behintzat, eten barik ebalu direnak edozein gurari edo desio adierazoteko: *Umiari esaten xako zer gura dauen meriendaitteko, aittari edo aittajunari zer bihar dauen afaritteko eta amari zer gurako leukien bere egunerako. Dendan preguntauako doskue zer bihar dogun, eta bankuan zer gura dogun.* Hortaz, **gura izan** edo **bihar izan** aditzak izan dira orain arte gure artian ezagutu diran bakarrak gurarixa adierazoteko.

Nahi izan geruago aillegau xaku, eskola, komunikabide eta literaturaren bittartez, eta horrein indarrez idatziz guztiz nagusittu da eta agoz be lehen baiño gehixago entzun eta ebalten da.

Azkenenengo aillegau dan horri ezer kendu barik, gorde degigun hemengo **gura izan** eta **bihar izan** aditzak edozein gurari adierazo bihar dogunian ebalteko.

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|--------------|-----------------------|
| 1. Menustu | A. Bigundu (uretan) |
| 2. Garbatu | B. Erdi mozkortu |
| 3. Birindu | C. Iragazi |
| 4. Beratu | D. Eskastu |
| 5. Berdoztu | E. Irentsi |
| 6. Bereandu | F. Damutu |
| 7. Kankinddu | G. Urtu |
| 8. Errendiu | H. Beroak jota geratu |
| 9. Irauntsi | I. Nekeak jota geratu |

EUSKERAZ EGOGI

*Eskerrikasko

Askotan ikusten dogu berba horreik batera eskribiuta; goguan izan bihar dogu, baiña, bi berba dirala eta banaanduta idatzi bihar dirala.

Beraz, hemendik aurrera **eskerrik asko** idatziko dogu bi berbatan, berba bakarrian [eskérrikaskó] agoskau arren. Honen sinonimua **milla esker** edo **millesker** dogu, era bixetara idatzi leikiena Euskaltzaindixari segiuz.

Beste honeik be haren sinonimuak dira: **esker milla**, **esker(rik) anitz**, eta lagun arteko berbetan “**mertxi**” be bai.

1d, 2f, 3g, 4a, 5b, 6j, 7h, 8i, 9e, 10c
-Billatu aditz honein sinonimuak

ERANTZUNAK



Kale Barrixa be aldatu dala...

Bai horixe! Konturatuko ziñain, seguruenik, argazkixa nundik atarata dagueen. Ba, garai batian **Naparreneko kantoia** zan inguru hori, Iturmenditarren taberniagatik, jakiña; **Kaionekua** be esaten xakon, taberna parian, Kaio Urtzelai zapatarixak Ota-**dui** etxearen azpikaldian bere taillerra eukalako; **Konfitterueneko kantoia** lez be ezaguna zan, beste ertzian Arrazola-tarren gozotegixa eguelako, eta beste izen batzuk be eballi ziran bidekurtze horretan jarten ziran denda edo negoziuen arabera.

Egixa esateko, kaliaren zabaleria eta kantoiak lehenguak dira; hala ta guztiz be, ezin ukatu argazkixari ondo errepara-

rau bihar izan xaugula ikusi ahal izateko **Kale Barrixaren zatirik zuzenena eta luziena** dala hor agerketan dana. Barren-barrenian igarten dan Txurrukaneko arkupeiak emuten dau hori pentsaitteko bidia. Dana dala, egon da, bai, mudantzarik: **zoruko adokiñak eta albueta espaloiak**, esaterako. Baiña horreik guk geuk be ezagutu dittugu: adokiñak 1960 hamarkadaraino iraun euen; espaloiak, barriz, orain dala urte gutxi kendu zittuain, kalia batez be oiñezkuendako egokittu zanian.

Aldaketarik nabarmenenak etxietan somaitten dira. Eskumakaldekuetan ikusten da hori onduen. Erdizka agiri dan lehenengo fatxadiak atian txintxillik dakon bi bizar-ontzixak **barberixia** zala erakusten doskue. Izan be, hortxe jardun eben bizarra eta ulia mozten urte askuan, XX. gizaldiko lehenengo hamarkadetan, **Tiburzio Mendizabalek**. Gerora, gerra inguruan, barberixiari zihero jare barik, **bizikleta-dendia** be ipiñi zan, **alkilerra**, orduan esaten geben moduan. Gure mutiko-denborara orduko bizikletak bakarrik saldu edota alkilaitten ziran. Azkenaldian, barriz, Oñatiko **kirol-dendarik haundixena jarri daue Mendizabaldarrak** Kale Barri eta Patruie kaliaren arteko kanto horretan.

Hurrengo etxian **Korkostegitarrak** bizi ziran, arotz eta ebanista famauak; **aroztegixa ez eukain bertan, Atzeko kalia baño**; baiña etxepe horretan jarri eben **Korkostegi-Astigarraga** izeneko soziedade batek 1930 aldera **aparato elektrikuak** (nobedade haundixa orduan) saltzeko dendia. Hirugarren etxia zuztarretik bota ondoren, **Zabor txokolaterixiak** Oñatin euki eben lehenengo fabrika egon zan martxan 1946tik 1966ra arte, Altzibarrera fan ziran bittartian. **Ignazio Egaña** eta Anjel Mendiola oñatiarrak sortu euen.

Aurrekuari erantsita eguen eta dago gaur egun be **Egañatarren panaderixia**, aspaldittik etorrena; Ignazio txokolaterixiarekin hasi zanian, bere anaiak, **Jabierrek, heldu otsan okindegiko negoziuari**. Kanpoko aldetik begiratuta behintzat, etxe hori da, fotografixan datorren irudixarekin konparauta, gutxien kanbixau dana. Bestalde, Atzeko kaleko Eskolatxenuarekin batera, hau izango da familixa berak ogigintzaiari eutsi xauen Oñatiko panaderixia. Hortik beherako etxebizitzan irudixa ezta hain garbixa, aurrea egin ahala estutuaz doia-eta.

Ezkerraldian lehenengua bakarrik agerketan xaku samur samar identifikaitteko moduan: **Naparrena**. XX. gizaldixan **taberna famaua** euki eben Iturmedi familixiak Kale Barri alderako etxepeian; gure denporan **Margarita eta Roxendo tabernari oso popular eta estimauak** izan ziran; hori bai, etxaten Naparrenekuai gorabehera eta arazorik falta izan, 1936ko gerratian eta ondorenian taberniarekin jarraiketako debekua jaso euelako, eta 1950 hamarkadan **etxia erre** egin zalako. Tabernia itxi eta gero, beste negozio batzuk jarri dira lokal horretan; argazki-dendia lehenengo eta arropa-dendia gaur egun.

J. E.

Fotografixia Oñatiko udal artxiboko argazki zaharren fondotik eskuratu dogu. Jexus Mendizabalek samurtu dosku euren dendiarene historixiarene inguruko argibidiak. Milla esker!

B COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

www.coinbroker.eus

B COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

www.coinbroker.eus



COINBROKER, ALOÑA MENDI FUTBOL ESKOLAKO BABESLE BERRIA

Eskerrik Askok!
bezero eta herritar guztiei

elkarrekin
HAZI
nahi dugu



B COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9
20560 Oñati / Gipuzkoa



943 089006



www.gipuzkoa.coinbroker.eus



oinati@coinbroker.eus